


ttipi ttapa

2003ko apirilaren 3a • XXIII. urtea



Jose Luis Etxegarai
Udalbiltza®ko kide **03**

Udalbiltza®ko zuzendaritza batzordeko 10 kideetako bat da Lesakako alkatea. Iparraldea, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa elkartzeko programan ari da.



Beti Gazte azpitxapeldun etxean **29**

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako 600 kiloko finala jokatu zen Lesakan martxoaren 22an. Beti Gazte bigarren izan zen Abadiñoren ondotik.



04 Adinekoen gimnasia: Sasoia urteak haina

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



- *Gazteendako mogleak*
- *Armairu enpotratuak*
- *Neurrira egindako armairuak*
- *Sukaldeak*
- *Aurrekontuak konpromezurik gabe*

Deskontu bereziak erakusketako mogleetan

ERAKUSKETA: Bittiria 30

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31770 LESAKA



UDALBILTZA[®]

EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

UDALBILTZA[®]k,

denon giza-eskubide guztien alde egonik,

Euskal Herriko herrien arteko senidetze

programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltzainfo.com



DATUAK...

- Hamasei urte bete ditu Lesakako alkatetzan eta maiatzaren 25ean bertze lau urterako presentatuko da EAJ-EAren izenean.
- EA-EAJk Nafarroako Parlamenturako aurkeztuko duen kandidaturan ere hirugarren hautagaia izanen da Etxegarai, EAJ-PNVko hautagaietatik lehena.
- Udalbiltzaren sorreran parte hartu zuen eta gaur egun Udalbiltza®ko Zuzendaritza Batzordeko kidea da.



Jose Luis ETXEGARAI Udalbiltza®n Zuzendaritzako kidea

«Soka sobera tenkatu gabe, poliki-poliki aitzinera egingen dugu»

J. IRIGOIEN

Nola gogoratzen duzu Udalbiltzaren hasiera?

Sekulako gogoarekin hartu genuen lana baina gero dena hautsi zen ETAK su-etena bukatzean. Gero, Mahai Nazionaleko 15 mahaikideetatik 10 gelditu ginen eta Euskal Herritarrok-en izenean zeudenak kanpora joan ziren eta izen bereko bertze Udalbiltza sortu zuten.

Nahasbide frango bada geroztik izenarekin...

Bai, desberdintzeko erregistro markaren ®-a jartzen diogu izenari, eta gure Udalbiltza® gestionatzen duen elkartearen izena Udalbide Elkarlan da. Hamar alkatek osatzen dugu elkartearen Zuzendaritza Batzordea.

Idea bat egiteko, zenbat hautetsi ordezkatzan ditu Udalbiltza®k?

Azkeneko Batzar Orokorrean 800 hautetsi baino gehiago bildu ginen. Guztien buru Zuzendaritza Batzordea da, gero herrialde bakoitzeko Batzordeak, eta programa desberdinen arabera baita lan batzordeak ere.

2003ko egitasmoa onartu berri duzue. Zeintzuk dira eskuartean di-

«2003ko aurrekontua onartu berri dugu eta 1.052.124 Eurokoa da.

Zatirik handiena Euskal Herria Sendotzen egitasmoak biltzen du, 560.000 Euro»

tuzuen programak eta zu zeu zeinetan zabilta?

2003ko aurrekontua onartu berri dugu eta denetara 1.052.124 Eurokoa da. Zatirik handiena Euskal Herria Sendotzen egitasmoak biltzen du, 560.000 Euro. Programa honetan sartzen dira Euskara, Irakaskuntza, Kultura-kirola eta Komunikabideak. Batez ere Nafarroa eta Iparraldekoak izan dira gure laguntzen onuradunak. Eta horien artean Seaska eta Nafarroako Ikastolen Federazioa, Sortzen Ikasbatuaz, Iparraldeko Euskal Irratiak, Iruñeko Euskalerria Irratia, Orreaga, Euskara Kultur Elkargoa, Herria, Ttipi-Ttapa eta bertze hainbat. Ni Hurbiltzen programan ari naiz. Izenak erraten duen bezala, Iparralde, Nafarroa eta Euskal Autonomi Erkidegoko herrien arteko senidetze programa da Hurbiltzen. Lesakak, kon-

paraziora, Azkain eta Oionekin du anaitasun hitzarmena. Programa honen aitzinera egingen dugu aurten eta 150.000 Euroko aurrekontua du. **Nola baloratuko zenuke orain arte egindako bidea?**

Sekulako ilusioarekin hasi ginen elkarrekin lanean eta azkenean hautsi egin zen. Geroztik, izen bereko bi elkarte izateak nahasbide handia sortzen du, eta horrek sekulako kaltea egiten digu denoi. Nolabait berriz akordioaren bat bilatu beharko da.

Eta bada zerbait zentzu horretan?

Nik dakidala ez. Ikusi beharko da hauteskudeen ondotik zer agertzen den, ea mentalidade, idea eta gogo berriekin hasten den jendea.

Etorkizuna ilusioarekin hartzen duzu, beraz?

Normalean ez naiz sobera euforiko izaten, ez onera eta ez txarrerara. Dena den badut ilusioa eta lan eginez soka sobera tenkatu gabe, poliki-poliki aitzinera egingen dugu. Denbora behar izaten da, gauzak ez dira egun batetik bertzerara egiten. Dena den, komeni izanen zen berriz elkarrekin gure herria aurrera ateratzeko.



ARGAZIAK: AITOR

Beran 35 bat emakume biltzen dira gimnasia egitera. Inguruko talderik handiena da.

APIRILAREN 23AN ARKUPEAK-EN GIMNASIA BESTA

Hirurogei urtetik goiti ere gorputza mugitzea komeni da

Apirilaren 23an gimnasia erakustaldia eginen du Arkupeak elkarteak Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Hamahirugarren urtez egiten dute erakustaldi hau. Egun bakarreko erakustaldia izaten da, noski, baina gibeletik, urte osoan egiten dute lana inguru honetako adinekoek gimnasia eta yoga ikastaroetan. Kasik kasu guzietan, emakumeak dira gimnasiara joaten direnak, batzuk 80 urtekoak ere. Astean bi orduz elkartzen dira gehienetan, pixko bat izerditu, koordinazioa eta elastizitatea landu eta, nola ez, lagunekin solastu eta jostatzeraz.

Aitor AROTZENA

Daniel Fioramantek zortzi urte daramazki gimnasia klaseak ematen Oitz-Donamaria, Sunbilla eta Narbarteko taldeei. Jende beretsuarekin ari da eta urte hauean hobekuntzak somatzen dizkie: «Gehienek aitzinetik ez zuten deus egiten, mendian pixko

bat ibili bertzerik ez. Koordinazio ariketak egiten dituzte normalki eta nik hobekuntzak somatzen dizkiet. Baina hori eurek erran beharko dute».

Leire Portuk lehenbiziko urtea du Berako taldearekin irakasle lanetan. Berekin ari diren guziak emakumeak dira: «Gazteenak 57

urte ditu eta 78 urteko bi emakume ere badituzte. Batzuk Arkupeak egunean parte hartu behar dute eta koreografia prestatzen dugu. Bertze batzuk ez dira joanen eta hauek ariketa ezberdinak egin nahi dituzte. Hori bai, gehienetan klasea hameketakoarekin bukatzen dugu, baten urtebetetzea dela, bertzearen eguna... pastak janenez eta moskatela edanez akautzen dugu». Izan ere, kirolaz gain elkartzea eta kontu kontari aritzea ere garrantzitsua da adin haueko emakumeendako.

Patxi Txokarrok yoga ematen du Doneztebe, Etxalar, Leitza eta Urdazubin. Gimnasia baino kontzeptu zabalagoa da yoga eta ariketaz gain, elikadura edo psikologia ere lantzen du. «Nik beti erraten diet hiru gauza landu behar direla egunero: gorputza, bihotza eta burua». Hamabortz urte in-

ADINEKOEN GIMNASIA

Herria	Zenbat lagun
Arantzaz	6
Bera	35
Doneztebe	15
Elizondo	25-30
Etxalar	13
Igantzi	6
Leitza	15
Lesaka ^(*)	30
^(*) San Fermin J.E.	
Narbarte	8-10
Oitz eta Donamaria	15
Sunbilla	23
Urdazubi	13

guru baditu Txokarrok inguru honetan yoga ikastaroak ematen.

«GORPUTZALDI ONA UZTEN DIGU ARIKETAK»

Leitzako taldean 4-5 gizaseme baldin baditu ere, bertze gainerako gehienak emakumezkoak dira, bakarren bat 80 urtetik goitiko ere. «Aunitz gustatzen zaie, sententzio onak uzten dizkie ariketak. Bakarren bat bere gorputza sentitzen ez zuela etorri zen eta orain bere gorputzarekin gozaten duela erraten du» dio Patxi Txokarrok.

Lesakako San Fermin jubilatuek antolatzen du adinekoendako gimnasia, nahiz eta urteko erakustaldi horretara ez joan. Hondarribiako Maritxurekin aritzen dira. Arantza eta Igantzin Irungo Karmelek ematen ditu klaseak eta herri baikoitzean sei bat emakume aritzen dira. Ana Mari Zelaia ta igantziarrak aipatu digunez, «gurea ez da gazteek egiten duten gimnasia, noski, baina egiten dudanean gorputzaldi hobea somatzen dut». Urtero-urtero joaten da Arkupeak antolatzen duen gimnasia egunera eta aurten ere ez du hutsik egingen.

Adinean aitzinera joan arren, oraindi zauli eta arin daude emakume hauek.

URTEKO ERAKUSTALDIA ANAITASUNAN



Sunbillako frontoian ere talde ederra biltzen da astean bitan.

Gimnasia goizean, bazkaria eguerdian, dantza arratsaldean

Nahi duten bazkide guztiak joaten ahal dira apirilaren 23ko Arkupeak elkartearen gimnasia eginera, hori bai, Gimnasia egiten dutenek eguna ordainduta duten bitartean, bertzeek 25 euro ordaindu beharko dute. Izen emateko epea apirilaren 1etik 8ra

irekiko da eta autobusen irteera ordutegia izena ematerakoan jakinaraziko da. Gimnasia erakustaldia goizeko 11:00etan hasiko da Iruñean aski izen ona duen Anaitasuna klubean. Baina dena ez da gimnasia egin eta izerdia botatzea izanen. Gero, bazkaria Palacio de Gorraiz jatetxean egingen dute, XVI. mendean eraikitako jauregi ederrean hain zuzen. Ordubiak aldera hasiko dute bazkaria honako menuarekin: zizkamizkak, txuritabeltz, barazki pudina eta ondoen krema, sagar sorbetea, antxume errea, Idiazabal krema, etxeko postreen degustazioa, ura, ardoa, kaba, kafea eta kopa normalak. Bazkalondoan, 16:30etatik 19:00etara dantzaldia izanen da Modestorekin.

YOGA ETA YOGA IKASTAROA

Ordua	Noiz	Irakaslea
Astelehen-ortzegun 16:00-17:00		Karmele
Astearte-ortzegun 11:00-12:00etara		Leire Portu
Astelehen-asteazken 16:00-17:00		Patxi Txokarro
Astearte-ortzegun 16:00-17:00		Patxi Txokarro
Asteazken 19:30-21:00		Patxi Txokarro
Astelehen-ortzegun 17:15-18:15		Karmele
Astelehen-asteazken 21:00-22:00		Patxi Txokarro
Astelehen-ortzegun 16:00-17:00		Maritxu
Astelehen-ortzegun 17:00-18:00		Daniel Fioramante
Astelehen-asteazken 15:00-16:00		Daniel Fioramante
Astearte-ortzegun 15:15-16:15		Daniel Fioramante
Ortzegun 21:00-22:30		Patxi Txokarro

Pilar IRAZOKI (BERA)

Gure martxa ikusiz animatu da jendea

10-12 urte izanen dira gimnasia egiten dudala. Lehen Profesionaleko gimnasia gela egiten genuen eta gero kiroldegira pasatu ginen. Hasieran hagitz gutti izan ginen, baina gure martxa ikusiz animatu da jendea. Ez da berdina mendian ibiltzea edo gimnasia egitea. Hemen, halako ordu batean etorri behar duzu eta honela zure buruari gogor egiten diozu. Nik besoan zailtasun bat nuen eta arituz arituz hobetzen joan da.



Maritxu ZUBIETA (SUNBILLA)

Gorputzarentzat ona da, dudik gabe

Aurten 16-17 lagun gara, baina izankatu gara hogeita gehiago. Ni hasiera-hasieratik ari naiz, hamar bat urte bai aisa! Ni batzutan hobekixiago sentitzen naiz, bertzeetan makurxeago, baina gorputzarentzat ona izanen dela iruditzen zait, dudarik gabe. Adin honetan pixko bat mantentzea ere ez da gutti! Bertze urteetan joan izan naiz Arkupeak egiten duen bestara eta aurten ere gustora joanen nintzateke, ikusiko



Isabel MITXELTORENA (Doneztebe)

Yoga gimnasia baino lasaiagoa da

Hiru urte daramazkit yoga egiten. Duela urte batzuk gimnasia egin nuen, baina urte batzuk deus gabe izan ginen Donezteben. Arkupeak elkartek berriz hastea pentsatu zuen eta hor hasi ginen batzuk. Gimnasia baino lasaiagoa da yoga. Normalki lantzen ez dituzun giharrik lantzen dituzu. Gimnasia izerdi gehiago ateratzen da, bortitzagoa da. Yogan postura jakin batean ahalik eta denbora gehien egon behar duzu. Gorputzaz gain burua ere lantzen da, kontzentrazioa batez ere. Ni zauliago nagoela somatzen dut.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Franko Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irgoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

EGUNKARIAko langileen oharra herritarrei

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu herri aldizkari, elkarte eta herritarrei, otsailaren 20tik bertatik ematen ari zareten laguntzagatik eta babesagatik.

Bestalde, gogorazi nahi dizuegu EGUNKARIAko langileok beste proiektu bat lantzen hasteko konpromisoa hartua dugula, eta oraingoz berau laguntzeko bideak zeintzuk diren, herri-batzordeen bidez bideratuko direnak:

- Egin harpidetza EGUNERO egunkarian.
 - Erosi ohiko taberna, ikastetxe eta abarretan euskal prentsaren aldeko bono-laguntzak.
 - Erosi kamisetak, zapiak, metxeroak, peginak, pin-ak eta abar.
- Eskerrik asko, eta EGUNKARIA aurrera!

Egunkariako langileak.

Egunkaria

Hilbeltzaren ostean, hilabete beltzagoa gerturatu da Euskal Herriko prentsa eta kulturaren esparrura:

Espainiako Auzitegi Nazionalako Juan del Olmo epailearen 12 orrialdeko autoaren arabera; Egunkaria Sortzen S.L. elkarteak eta Egunkaria S.A., ETA-ren sare mediatikoak lirarteko.

Arrazoi hau dela eta, otsailaren 20ko ordu txikietan, bulegoak miatu, prezintatu, Egunkariarekin lotura duten edo izan zuten hamar kide inkomunikazio egoeran jarri, umilatu, mehatxatu eta torturatu zituzten. Zurrumbilo beltz honi, Pello Zubiriaren zortzi egunetako inkomunikazioa eta ospitalizazioa gehitu beharra zaio.

Espainiako epaileek bideratutako legeen legimitatea edo zilegitasuna zalantzan jar daiten garai honetan, euskararen eta bertako kulturaren aurkako ber-

tze gurutzada bat bezala pertzibitu daiteke ekin-tza berri hau.

Baina zein ote gure delitua?

Eredu globalizatzaile honetan, herri txiki bat izatea?; euskara nonahi erabili eta entzun nahi izatea?; hezkuntza sistema euskaldun irmo eta sendo baten bermea aldarrikatzea?; euskaraz amets egitea?; teknologia berriak zein hedabideak euskaraz gozatu nahi izatea?; eguneroko bizimoduan, pertsona bezala, inongo muga eta oztoporik gabe euskaraz garatzeko eta osatzeko desira izatea?...

Nahiz eta buruari milaka jira-bira eman, ez dugu erruduntasunik aurkitzen. Gurea dena defendatzea, aldarrikatzea eta egoera diglosiko eta zapaltzaile honetan NORMALIZAZIOA-ren nahia balezkotzat jotzen baititugu.

Halaber, nahiz eta erruduntasunik ez aurkitu, arras argi dugu eraso hauei guztiei aurre

egin behar diegula; gurea dena defendatuz eta beraiek zapaldu eta apurtutakoa berreginez.

Besteak beste, egungo globalizazio oldarkor honen aurrean; mundua kolore bakar batez margotu nahi dutenei, hizkuntza eta kultura bakar bat indartu nahi dutenei... hizkuntzen eta kulturen aniztasuna eta aberastasuna exijitu behar diegu. Hau da, Euskal kulturak mundu honetan leku bat daukala berretsi eta aldarrikatu beharra dugu: Egunerok lan eginez, eskuartean daukaguna aberastuz eta honen bizirautea bermatuz, oinarriak sendotuz, kaleak hartuz, euskaraz hitz eginez, torturak desagertaraziz, euskal instituzioei konpromezu handiagoko eskatuz, autonomoagoak izanez... ERREX DIEZAIAGUN BIDEA GURE ONDORENGOEI.

Baztandarren Biltzarra
"Eskuarak batzen gaitu"

LITERATUR LEHIAKETA

Gaia: «Herriak eta hizkuntzak. Euskara eta Euskal Herria»

- SARIAK: 1.- Bortzirietako Udalen Saria
- 2.- Bortzirietako Elkarteen Saria
- 3.- Ttipi-Ttapa eta Xorroxinen Saria



Antolatzailea:

Laguntzaileak:

• EUSKADIKO KUTXA



• MARTIKO



• TABERNA EDARIK



• BENTA MIGUEL



• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 2003-03-19

«Normalki bi orduz jotzen dugu karrapean igande arratsaldetan, seietatik zortzietara eta udan ordu erdi beranduago, baina inork ez du dantza egiten eta hori gogorra da guretzat. Beno, udan gurasoak seme-alabekin joaten dira, beraien topalekua baita. Orduan atseginagoa da eta gustora bueltatzen zara etxera.»

Fermin AZPIROZ
Leitzako txistularia
D. Navarra 2003-03-18

«Behi-esneaz bizitzea arras gogorra da eta ez dakigu zer eginen dugun. Volkswagenek langileak botako zituela anuntziatu zuenean komunikabide guziak mugitu ziren eta inpaktu sozial handia sortu zen. Ehundaka abeltzain joaten ahal gara langabezira, baina inork ez du deus ere erraten. Litroa 45 pezeta ordaintzen digute eta dendan 120 balio du. Zein gelditzen da diru horrekin?»

Mikel AZKARATE
Zigako abeltzaina
D. Navarra 2003-03-27

• 11 GALDERA LABUR •



Mikel JUANIKORENA *Zubietako tabernari eta kirolaria*

- Zergatik aterpetxe bat Zubietan?**
Etxe zahar bat banuen eta irteera emateko hori gogotu zitzaidan.
- Nola eusten zaio herriari?**
Behar diren gauzak eginda bere denboran. Herriak dauzkan baliabideak probetuz eta aurrera eramanez.
- Hotel Glamour edo Zubietako aterpetxea?**
Zubietako aterpetxea, dudik gabe.
- Zer da turistek Zubietan gehien maitatutena?**
Herriaren itxura eta errota eta herriarren lasaitasuna kanpotarrekin.
- Iñauteriak edo bestak?**
Iñauteriak.
- Bidai bat eginen zenukeena eta oraindik ez duzuna egin?**
Kubara bizikletan ibiltzera.
- Herri bat bizitzeko?**
Zubieta.
- Zubietako gauzarik gustokoena?**
Jendearrekin egotea.
- ...eta zer falta zaio Zubietari?**
Umeendako eskola eta erreka pis-zina... eta zahar etxe bat zahartzen naizenerako.
- Bizio bat?**
Ez dut biziorik, bueno, Murtxanteko ardoa edatea.
- Zer eginen zenuke diruarekin, soberan bazenu?**
Hainbeste gauza eginen nitzuke... Mundua ezagutu...

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

TEL K
K MISET K
ISE K
TXISKEI X

N HI UZUNK U U, NEU I ET ISEINU ENA
Ezt r 2 h T l- F x 3 15 21

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • ☎ 948630083 BERA

ERROTAZAR

Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

LANA

Zalaingo lantegiaren etorkizunaz kezka azaldu du Aceraliako Enpresa Batzordeak

Bortzirietako alkateekin bildu eta prentsaurrekoa egin zuten martxoaren 20an

Nerea ALTZURI

Aceralia lantegiko batzordeko ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten martxoaren 20an Etxalarko Kultur Etxean. Lantegiko zuzendaritzak eta Arcelorrek tuboen alderdia edo tubularra saltzeko aterituen interesaren aitzinean, kezka agertu du lantegi batzordeko kideek. Prentsa agerraldian, LAB sindikatuko Patti Eskudero eta Julen Mitxelorena, ELAko Benancio Delavina, UGTko Patxi Altzu eta Santi Segura, ESKko Pello Astiz, Comisiones Obreraseko Ramon Alvarez eta Confederacion de Cuadroseko Jesus Castro. Beraz, Aceralian ordezkariak duten sindikatu guziek bat egin zuten agerraldian.

Joan den abenduaren 12an herrialde mailako agerraldi batean eman zen lehenengo informazioa eta denbora aitzinera, erabaki eta asmoaren mamia garatzen ari da.



ARTXIBOKOA

Duela aste batzuk Iruñean egin zuen prentsaurrekoa Aceraliako enpresa Batzordeak, Zalaingo lantegiari buruzko kezka azaltzeko. Oraingoan, Etxalarren egin dute, Bortzirietako alkateekin bildu ondotik.

Honako hau aitzinera eramanen gero, Zalaingo lantegiaren, Euskal Herriaren Berriplanoa lantegiaren eta Espainiara joanez, Asturiasko lantegiaren itxierak emanez gero, etorkizunean lantegi honen krisia etorriko litzateke. Lantoki hauen guzian enplegua zalantzan izanen dela ondorio garbi

eta kezkarrietakoa da, epe erdi-luze batean 800 langileren lanpostuak arriskuan izanen liratekeelako.

BORTZIRIETAKO ALKATEEKIN ERE BILDU ZEN EGUN BEREAN ENPRESA BATZORDEA

Kezkaren berri egun berean jaso zuten Bortzirietako alkateek. Age-


rraldi honen aintzinetik lantegiko batzordeak ordu terdiko bilera izan zuen bortz alkateekin. Gai honetan interesa eta babesa eskaintzeko asmoa erakutsi zuten alkateek

Eskualdeko bertze alkateekin ere bilkurak izanen dituzte hementik aitzin. Gainerakoan, laister Luxenburgeko

ateak jotzera joanen dira bertara.

Arcelorreko zuzendaritzari bilera eskaera egin zion lantegi batzordeak berri hau jakin bezain abudo, baina hau idazterako orduan, oraindik ez du erantzunik jaso. Bilkura horretarako hitzordurik ez duenez, Aceraliako enpresa komiteak Luxenburgeko Arcelorreko zuzendaritzako bulegoetan kezka ozen plaza-ratu behar dela uste du. Izan ere, kezka handia da sindikatu eta ordezkari eta langileen gan.

Gure zonaldean lantegi indartsuena Aceralia da eta bertakoen lanbidea bertan dago, bizilagunen portzentai handi batena bai bederen. Momentuz, mobilizazio gehiagorik ez dute antolatuko, lantegiko zuzendaritza eta Arcelorreko zuzendaritzarekin izandako hartuemanek zer nolako erantzuna ematen duten jakin aintzinetik.



JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
PINTURA LANAK OROKORREAN
 666 235 466
 948 630 683
 Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA



BERA

Gure Txokoa elkarteak urteko batzarra egingen du apirilaren 8an

Zuzendaritza batzordeak dei berezia egin die bazkideei bilerara joateko

Amaia eta Ainhoa

Gure Txokoa elkarteak urteko ohiko batzarra egingen du heldu den asteartean, apirilaren 8an, 20:00etatik aitzinera, lamoteneako egoitzan. Ohikoa izan arren, aurtengoan deialdi berezia egin die zuzendaritza batzordeak bazkideei bertara agertzeko. Izan ere, diru arazoak ditu elkarteak eta bertzeak bertze, urteak igo gabe daramazkiten kuoten eguneratzea proposatuko zaio batzarrari. Beraz, ahalik eta bazkide gehien iritzia jakin nahi du elkarteak erabaki hauek hartu baino lehen. Gainerakoan, iazko akta irakurri eta aprobatako da, iazko kontuak aztertuko dira eta aurtengo aurrekontuaren eta egitasmoaren berri jakinaraziko da, eskari-galderen aitzinetik.



Ander Rodriguez Korta (2. mailan, eskuinetik hasita irugarrena) 15 urteko igerilari beratarra emaitza bikainak eskuratzen ari da. Martxoaren 8an eta 9an, erraterako, Zarautzen jokaturako Noroeste Ibérico izeneko txapelketan parte hartu zuen argazkian ageri den Euskadiko selekzioarekin. 400 metro estiloetan aritu zen eta bere markarik onena hamar segundutan hobetu zuen, 5 minutu eta 80 zentesimatan utzi. Ekainean jokatu den Espainiako txapelketan parte hartzeko oraindik bi segundutan hobetu beharko du marka hori, baina itxaropentsu ageri da Ander Rodriguez. Hain gaztea izan arren, martxoko azken aste hondarrean Iruñean jokatu den Euskadi eta Nafarroako igeriketa txapelketa absolutoan parte hartzekoa zen Irungo Artaleku Igeriketa Elkartearen izenean aritzen den beratarra.

FLASH

Igerileku estalia eskatuz sinadura bilketa

Bortzirietarako igerileku estali bat Beran egin dadin eskaria egiteko sinadura bilketa egiten ari dira. «Beran igerileku estali bat inguruko kirol instalakuntzen osagarria» izanen litzatekela uste dute. Kiroldegian eta bertze zenbait lekutan utzi dute sinadura-orria.

EA eta EAJ elkarrekin

Berako EAk eta EAJ-PNVk maiatzaren 25eko hauteskundetara elkartuta joan direla jakinarazi dute ohar baten bidez. «Aniztasuna eta berdintasunaren alde lan egingen dugu, hortarako zuen iradokizunak behar beharrezkoak ditugularik».

Beraiñez plataformaren aurkezpena

Joan den larunbatean, martxoaren 29an, Beraiñez herri plataformaren aurkezpena egin zen Kultur Etxean. Legez kanpo utzi nahi diren ideiak defendatzeko sortu da plataforma.

OMENALDIA


Txomin lantzi zena gogoratuko dute bere lagunak apirilaren 12 eta 13an

Bere heriotzaren lehen urtemuga apirilean beteko denez, Txomin lantzi zenaren lagun talde batek omenaldia egingen dio apirilaren 12 eta 13an, «Txomin gogoa» izenburupean. Larunbate-

an, 19:30etan jaialdia izanen da Kultur Etxean: Jabier Muguruza, Petti eta Josu Goia kantuan, eta Manolo Arozena eta Julen Zelaienta bertsotan ariko dira. Sarrera libre izanen da. 21:30etan, be-

rriz, lagunarteko afaria egingen da Gure Txokoa elkartearen. Txartelak Errekalde eta Zizka ostatuetan daude salgai.

Igandean, mendi ibilaldia egingen da Zigorriagara, 9:00etan suhiltzaileen parketik abiatuta. 11:00etan plaka oroigarria jarriko da Zigorriagan.



Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deituz! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**

BERA DESINFECCIONES

© 948630155
BERA

SAROBE
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - **BERA**

LESAKA

Beti Gazte elkarteak 53.320 euroko aurrekontua onartu du

Bertze hautagairik agertu ez denez Salvador lantzik segituko du

Aitor AROTZENA

Beti Gazte elkarteak 53.320 euroko aurrekontua onartu zuen martxoaren 14an egindako urteko batzarrean. Futbol arloak eramanen du aurrekontu horren erdia baino gehiago, 28.900 euro, elkartearen ize-nean ari diren hameka taldeen, futbol zelaiaren eta txapelketa ezberdinen antolaketa sortzen dituzten gastuen artean banatuak. Mendi sailak 3.600 euroko gastuak sortuko ditu eta 3.000 sokatirak eta xakeak. Diru sarrerei dagokienez, handiena bazkideen ekarpena izanen da, 13.000 euro. Aurten euro bateko igoera izanen dute kuota guzietan: helduek 23 euro ordaindu beharko dute, 14-17 urteko gazteek 16 euro, eta erretiratuek eta 8-14 urte arteko haurrek 10 euro. Dirulaguntza ezberdinen bitartez 9.900 euro jasoko ditu Beti Gazteak eta futbolak, orokorrean, 20.100 euroko dirusarrerak sortuko ditu, mendiak 3.000 eurokoak, xakeak 2.500 eurokoak eta sokatirak 1.200 eurokoak. Aurten elkarteak prestatuko dituen ekitaldiak joan den urteko beretsuak izanen



ARTXIBOKOA

Igande honetan, apirilaren 6an eginen da Batzoki elkarteak antolatutako IX. Herri Lasterketa. Aurtengoan, Rafa Maritxalar herriko korrikalariaren izena hartuko du. Argazkian, lehendabiziko edizioetako bat ageri da. Eskuinean Rafa Maritxalar eta erdian Jesus Mari Calvo, bertze korrikalari lesakar handia ageri da.

dira. Dena den, pilotan erramienta eskola antolatu nahiko luke Beti Gazteak, horretarako aitzinetik Arkupe pilota elkartearekin solastuta. Errealarekin duen konbenioa aurtentzara ateratzea, bertzelako aukerak aztertu ditu elkarteak eta harremanak izan ditu Osasuna eta Athletic taldeekin ere.

Joan den urtea 4.504 euroko superabitarekin akautu zuen urtea Beti Gazteak, 70.081 euroko

dirusarrerak eta 65.577ko gastuekin itxi baitzuen urtea.

Zuzendaritza batzordean ez da aldaketa handiegirik izan. Joan den urtean hutsean gelditu zen lehendakari kargua eta Salvador lantzik bertze urte batera segitzea erabaki zuen. Aurten ere gauza beretsua gertatu da eta lantzik segitu beharko du karguan. Jose Ignacio Goia eta Koldo Erkizia izanen dira lehen-

dakariordeak, Modesto Maia idazkaria, Ana Errandonea diruzaina; Jose Mari Erkizia eta Endika Mendegia futboleko bokalak, Iñigo Olabarri eta Bixente Igartzabal mendikoak, Jose Antonio Mujika eta Joxe Angel Mitxelena sokatirakoak, Javier Oartzabal xakekoa eta aisialdi eta gaztediaren arduraduna, eta Juanjo Guerrero prentsa arduradun. Txirrindularitza saila desagertu egin da.

FLASH

1969-70-71koen kinto bazkaria

Apirilaren 26an eginen dute 1969, 1970 eta 1971an sortutako kinto bazkaria Irubide ja-tetxean. Izen ematea Haizegoa eta Koskilla ostatueta egin behar da, 30 euro ordainduz.

Bikote egonkorren udal erregistroa

Martxoaren 7ko udal batzarrean ezkondu gabeko bikote egonkorren udal erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza hasiera batez onetsi zen ahobatez. Hilabete batez jendaurrean ikusgai egonen da, herritarrek aztertu eta, behar baldin bada, erreklamazioak jar ditzaten.

Euskaldunon Egunkaria

Batzar berean, Udalak Euskaldunon Egunkariaren itxiera eta bere arduradunen atxiloketa salatu du, «euskararen normalizazioaren eta adierazpen askatasunaren aurkako erasoak direlako». Udalak tinko deitoratu du eraso hau, «euskararen aldeko jarduera oro susmopean jarri eta kriminalizatzeko saio bat gehiago delako eta euskararen normalizazio prozesua geldiaraztea helburu delako». Atxilotu eta kartzelaturik berehalako askatasuna eskatu du Udalak eta Egunkariaren aurkako «eraso berritu eta kioskoetan berritu egon dadila» esan du. Euskaraz egindako egunkaria gauzatzeko proiektuarentzat dirua emateko prest azaldu da Udala, proiektu hau zehazten denean.

IRU BIDE
ERRETEAN

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIA
Janari dena

Bititria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
ZAZPI
JATETXEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ETXALAR

Usategietako VI. Auto Igoera igande honetan izanen da

Etxalartik abiatuko da Bortziritako euskaltzaleek antolatutako Korrika

Joseba eta Nerea

Urtero bezala Eguzki Sport eskuderiak mar txan paratu du Usategietako Auto Igoera. Aurten seigarren edizioa du lehiaketa honek eta igande honetan egingen da, apirilak 6, goizeko 10,30etatik aitzin. Bederatzi terdietako itxiko da Usategietako karretera eta 12etan hasi da igoerako lehenbiziko txanda. Ordu bat beranduago egingen da hurrengo. Izena emandako partaideek egin beharko duten ibilbidea 5 kilometrotakoa izanen da eta denbora guttienean egiten duenak irabaziko du. Gainera, Etxalarko igoera hau Nafarroako mendiko txapelketa eta Nafarroako Junior mailako txapelketako puntuagarriak izanen dira.

Korrika 2003

Aurten ere ailegatu da bi urtetik behin egingen den Korrika tenorea.

Apirilaren 6an hasi eta apirilaren 13 arte Euskal Herrian zehar ibiliko da euskararen eta korrikaren aldeko oihua. Hala ere, aurten zoritarrez gure eskualdeetik ez da korrika ofiziala pasatuko. Hori dela eta, euskara eta AEK lagundu nahian Bortziritako euskaltzale batzuk bildu eta eskualde mailako korrika antolatzea erabaki dute. Korrika hau apirilaren 12an hasiko da gure herrian, Etxalarren. Arratsaldeko hiruak aldera herriko plazan jende parrasta biltzea espero da euskararen oihartzuna herrian barrena zabaltzeko. Ondotik, Arantza, Igantzi eta Lesaka zeharkatu ondotik Beran akabatuko da zazpiak aldera.

Beti bezala, korrikan parte hartzeko kilometroak salgai paratuko dituzte. Etxalarren bi erosi dira. Bat Altxata kultur elkarteak eta bertzea



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Lehenengo urtean herriko auto-gidariak, Jon Iparragirre, Joseba Beola eta Joseba Genua ederki ibili ziren. Ikusi beharko da aurtengoan ere iazko emaitzak errepikatzen dituzten.

herriko gazteek. Kilometro horien salmentarekin lortutako dirua AEK laguntzeko erabiliko da. Baina diruak garrantzia izanik ere, parte hartzea da egitazko balioa duena.

Korrika ttiki

Nahiz eta Korrika ofizialak eskualdeko eskoletan Korrika ttikirik ez antolatu, Landagain eskolak ekimen honetan parte hartzeko borondatea erakutsi du eta apirilaren 11rako presatatu du aurtengo Korrika Ttiki. Arratsaldean bilduko dira herriko ttikienak denak batera herriari buelta emateko.

Herri-sarrerako bidearen moldatzea

Badira 5 edo 6 urte herri sarrerako karretera arront egoera txarrean dagoela. Udaletxea aspalditik ari da Nafarroako Gobernuari beharrezko lanak egiteko eskatzen baina aurrekontu nahikorik ez zutela aditu behar izaten zuen maiz erantzun gisa. Azkenean, badirudi aurten egingen dituztela beharrezko obrak. Migel Mari Irigoien alkateak erran digunez «*udaberri edo udarako moldatuko dutela dudarik ez dut. Guk behinpean lehenbailehen egitea*

nahi dugu, aspalditik ari garelako afera honekin bueltak eta gainera benetako beharra ikusten dugulako».

Altxatako nobedadeak

Martxoaren 16an egin zen Altxata elkar-tearen urteko batzar orokorra eta aitzineko alean aipatu genuenez, Birjinia Arburuak junta utzi egin zuen. Bere ordeztan Jon Sansiñena 28 urteko gaztea izanen da junta osatuko duena Aina Arburua, Mari Asun Olagarai, Kontxi Antxorena, Iñaki Danboriena eta Nerea Mitxelorenarekin batera.

KOXKILA OSTATUA
 Berriro mus Koxkilan!
 Astero opari ederrek

 Zarandia, 4 - LESAKA

Ioredenda
 Albistur, 39-K
 ☎ 627542
 LESAKA
 • bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •

LEGARRA
 Prentsa _____
 Liburuak _____
 Tabakoa _____
 Opariak _____
 Kukuxumusu _____
 kamisetak _____
 Fax publikoa _____
 Plastifikazio _____
 a _____
 Enkuadernazi _____
 o _____
 lanak _____
 Inprimatu _____
 lanak _____
 Egunero bitxia
 Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
 BISTATU - JATETxea

 BISTATU - JATETxea
 BISTATU - JATETxea

IGANTZI

Herria ezagutzuz

Apirilaren 11era arteko epea piszinetako lanak hartzeko

Lana hartzen dutenek euren gain izanen dute funtzionamendu guzia

Oskar TXOPERENA

Uda hurbiltzen ari den neurrian orduan, ailegatzen denean egin beharreko zenbait lan prestatzen hasia da Herriko Etxea. Horietako bat igerilekuen lanen enkante edo subasta da. Azkeneko bilkuran apirilaren 11era arteko epea irekitzea erabaki zuten zinegotziek, hasieran 5.000 euroko salneurriarekin. Herrian barrera zabalduak bandoak dioenez, mantentzen diren, garbiketa eta funtzionamendua izanen dira hartzailearen eginbeharrak. Iazko udan baino eguraldi hobea egingen al du!!

Bertzalde, goi presioko ur horniduraren sarea moldatzeko lanak Pagozelai eta Sasoiak osatutako "UTE"ari ematea erabaki zuen Udaltzako otsailaren 28an. Lan nagusia depositoarena izanen da eta Uhaldeko borda inguruan lur-mugitze lanak egiten hasiak dira. Aparkalekuko urbani-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Igerilekuen lana hartzeko asmoa duenari heldu den astean akautuko zaio izena emateko epea.

zazio lanak ere Sasoi enpresari ematea erabaki zuen Udaltzako, 50.882 eurotan, kasu honetan Nafarroako Gobernaren dirulaguntzarik gabe.

Neskak Hondarribira

Apirilaren 22an Hondarribira izan ziren pabak eskolan ari diren neskek, Bea eta Anuntxi irakasleekin. Arratsalde ederra pasatu omen zuten bertan, Irun eta Hernaniko pala eskoletako ikasleekin batera.

Trukaketa iraunkorra

izatea nahi dute gainera eta hurrengo bilkura Igantzin egin behar omen dute edozein larunbat hauetako batean, bazkaria eta guzi. Tarteka trinketera jokatzeraz joateko gonbitea ere hartu dute, beraz, badute zer egina.

Isatsandia

Izengoitiak

Nafarroako Erribera aldeko herrietan oraindik ere jende gehiena izengoitiz omen da ezaguna eta zenbaitetan euren herriarren izen-abizenak ez gogoratzeraino ere ailegatzen omen dira. Inguru honetan, ordea, batzutan baserri edo etxearen izena norbait deitzeko erabiltzen badugu ere, gero eta guttiago erabiltzen dira izengoitiak.

Herriko Etxeko artxiboko dokumentoetan izengoiti franko agertzen da, XVIII. eta XIX. mendeetan batez ere. Batzutan izena edo abizenaren ondotik agertzen da idatzia, "Sampaulburubelz" errate baterako. Bertze batzuetan, berriz, bertze inongo erreferentziarik gabe: "Chamaurra, Murricha, Gorostipalo, Marchiel, Ezurrongizale, Mozorro, Mealle, Pastor, Putzu, Simona, Bastero, Barachuri, etab...". Zenbait kasutan, aipatu ditugun hauek baino aunitzez lehenago, jabearen izengoitiak eman izan zion izena etxeari: "Chiptorena" zen hasiera batean gaur egun ezagutzen dugun Txipitenea; Isasmendiaren jatorrizko izena, berriz, "Isatsandia" zen, jabearen bertutea lau haizetara zabaltzen zuen izengoitia, dudarik gabe.

ERREKALDE
PLATER KONBULTUAK
PARTIDAK
BONBARDAK
OSTATUA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

ARANTZA

Baserrietako pistak moldatu eta kanposantua haunditzeko lanetan ari dira

Eguzkialdea eta Azkilarrea auzoetako zenbait bideetan zimentua bota dute

Nerea ALTZURI

Herriko baserrietara joaten diren bide batzuk moldatzen dihardute Saso Eskabazioak enpresako langileak. Herriko Etxeak larreetara edo abereen esplotazioetara joateko bide publikoak hobetzeko eskaera egin zion Nafarroako Gobernuari. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendari nagusiak iazko abenduaren 18an emandako ebazpenaren bitartez, udalak 57.720,00 euroko diru laguntza jaso du Azkilarrea eta Eguzkialdea auzoetako aurikusitako bide horiek moldatzeko.

Eguzkialdean, Ola eta Igeta baserrien inguruan dagoen bidean zimentua bota dute; eta Azkilarrea auzoan ere gauza bera egin dute, Senberro baserriatik Gaisenberro baserriko gaineko bidegurutzera bitarte. Guzira, 1.675 metro bide zimentatuak gelditu dira. Eguzkialdeko Laraburukobordarako



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDIK UTZIA

Ski ateraldia Luz Ardidenera

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Luz Ardidenera eski ateraldia antolatu zuen martxoaren 15 eta 16an Gazte Asanbladak. Argazkian ageri dira ateraldi horretan parte hartu zutenetako batzuk. Erran beharrik ez da, noski, bi egun eder pasatu zituztela, larunbata eta igande goiza izan baitzuten eskiatzen aritzeko. Igande arratsaldean, nekatuak baina aski kontent itzuli ziren Arantzara, hurrengo ateraldia egiteko irrikitan.

bidea edo pista auzolan bitartez moldatuko da.

Bideak konponduak gelditu diren bitartean, kanposantua haunditzeko lanak ere aintzineratzen daramatzate. Sa-

soi enpresako langileak eta beraien laneko tresnak hilerrian egin beharreko lanetan joan den martxoaren erdialdean hasi ziren. Urbanizazio lanez gainera, ormigoizko panteoia pa-

ratzeko jardunean ari dira. Kanposantua haunditzeko lanak 79.989,00 euroko kostua dute; eta hilerrian prefabrikatutako 55 panteoi paratze-lanak 13.804,41 eurotan eman ziren.

Korrika Bortzirietan

Mauletik abiatu da Korrika 13. Aurten korrika nagusia ez da Bortzirietatik pasatuko; Baztango haranean hilaren 12an izanen da euskararen aldeko lasterkaldia, hilaren 13an Iruñean izanen duelarik helmuga. Bortzirietan ordea, apirilaren 12an korrikaren alde lasterka egiteko ibilbidea antolatu da arratsalderako. Etxalarren arratsaldeko hiruetan hasiko da ibilbidea, gero Arantzara etortzeko; eta hemendik Igantzira joanen da Korrika, Lesaka eta Bera izanen direlarik hondarreko geldialdiak. Euskara batzordea herriko ibilbidea egin eta prestatzen ari da. Apirilaren 12ko arratsaldean beraz, guziok Korrikan parte har dezagun.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
ALFONBRAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

BORTZIRIAK - KULTURA

«Aztarnen hatsa» antzerkiak arrakasta handia lortu zuen Beran

Herriko historiaren ikuspegia eman zuten zortzi leku ezberdinetan

ttipi-ttapa

Igande arratsaldean, «Aztarnen Hatsa» izeneko antzeslana ikusi bidenabar, Berako historiaren zenbait pasarteren inguruko errekreazioa eskaini zitzaigun Rikardo Barojako Guraso Elkarteak antolatuta. 16:30etan hasi ziren errepresentazioarekin Eltzaurpe tiki ondoan eta 19:00k aldera bukatu zuten Barojataren Itzea ondoan.

Eguraldi ederra lagun zutela, zientokajende bildu zen Berako karriketan barrena egin-dako ibilbide historikoa ikusterera. Aipatu bezala, herriko historiaren zertzelada batzuk eskaini zituzten. Tartean, XVII. mendean Altzate erre zutenekoa. Baina, noski, karrika ezin erretzen hasi eta eskolan egin-dako maketa bat erre zuten antzezleek. Herrian aztarna utzi duten pertsonaiak ere agertu ziren: sorginak, Jose Bonaparte, Wellington dukea. Salbat Alzate, Ma-



ria Urtubikoa, Femin Legia, Isidoro Fagoaga...

Denetara zortzi toki ezberdinetan egin zuten antzeslana. Horrela, karrikaz karrika ibili zen ikuskizun ibiltari hau: Eltzaurpe Tikitik Herriko Plazara, handik Foruen Plazara eta gero, Musika eskolara. Isidoro Fagoaga musika eskolatik Lazarobaitara, eta handik Apeztegira, eta akautzeko, Karnaxenetik Alzateko plazara eta Itzeara.

Aktore, musikari, kantari eta dantzarien artean, jende aunitzek parte hartu zuen: Mairu, Lamixene, Antzeko Parezido eta Emaizta antzerki taldeetako hain-



Argazkiak: Joseba OLAGARAI

Legiari egindako eskulturaren magalean egin zuten «Aztarnen hatsa» antzeslaneko emanaldieta-ko bat. Alzateko erreketaren irudipena ere egin zuten, maketa bati su emanez. Izan ere, Berako historia zuen oinarri lan honek.

bat aktorek, Berako koralak, dantzariak, musika eskolakoak eta orokorrean kultur arloan ibiltzen diren talde guzietan, antzerki erraldoiarekin

ikusbizun paregabea eskaini zuten. Ramon Albisturek zuzendu zuen emanaldia eta gidoi historikoa Izaskun Abrik idatzi zuen.

Bortzirietako Korrika apirilaren 12an

ttipi-ttapa

Ortziral honetan, apirilaren 4ean, abiatuko da Korrikaren 13. edizioa Mauletik eta Iruñean bukatuko da apirilaren 13an. Aurtum Korrika ez da Bortzirietatik pasatuko, baina aski hurbiletik ibiliko da. Apirilaren 5ean, errate baterako, Azkainetik eta Irundik pasatuko da, eta apirilaren 13ko goizaldean Baztandik pasatuko da, Iruñerantz.

Hala ere, Bortzirietan Korrika Batzordea osatu da, eta apirilaren 12rako Korrika antolatu da. Bortzirietako Korrika Etxalartik abiatuko da, 15:00etan. Gero, Arantzara segituko du, han buelta eman eta Igantzik pasatuko da, Piedadeko gainetik Lesakara jausteko. Azkenik Berara joanen da.

Korrika Alzateko Plazan bukatuko da. Han lekukoak eramanen duen meza irakurriko da eta, horrez gain, bertsolariak, trikitilariak, txistorra eta sagardoa, Korrikako materiala saltzeko postua... izanen dira.

Bortzirietako herritar guztiak, haur, gazte, nahiz helduak, ekitaldi honetan parte hartzea gonbidatu ditu Bortzirietako Korrika Batzordeak: lehenbizi norbere herrian eta gero, Berako azken zatian eta bukaerako bestan.

PIKABEA
Molinero drogerian
galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANU, TELETXEA ZUZUVA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

PINTURAS ERROTAZAR
(Iñaki)
LESAKA
• Pintura lanak
• Fatxadak
• Fatxadak
• Berritzea
Eskatu buruzkoak
komunikatzen gabe

ZAMBRA

l e s a k a

moda desfilea



ORDUA/HORA:
17.30ETAN

ATEEN IREKIERA:

APERTURA DE PUERTAS: 16.30ETAN

APIRILA
ABRIL

6

IGANDEA
DOMINGO

ANTOLATZEN
DUTE

ORGANIZAN

ZELA KIMIKAR

KALOTXA ZAPATADENDA

MARTZUTZAK ARROPA DENDA

TELLETXEA ARGAZKIAK

KULIMAN IFFORAZIOA

MARICRUZ LENTZERIA

IBARROLA HAURREN ARROPAK

RUTH ILKAPANDEGIA

AMAIA ILKAPANDEGIA

ZINIA LORELEUMIA

MIRARI HAURREN ARROPA

NOVIAS IZAN

MERTXE MODA HOMBRE

ESKAKA BELAKAK

TRINELKA ZAPATADENDA

IGOKO ARGAZKIAK

COLABORA

CAJA  NAVARRA

ITUREN

Txileko Anamuri emakume nekazari indigenen elkarteko kideak Iturenen

Martxoaren 22 eta 23an izan ziren EHNEk gonbidatuta

Iban ISASI

Martxoaren 22 eta 23an ezohiko bisitaldia izan genuen Iturengo herrian, bertako Herriko Ostatuan Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak (EHNE) gonbidatuta Anamuri, Txileko emakume nekazari indigenen elkarteko hamahiru kide izan baikenituen. Egia errateko EHNE eta Anamuriko partaideen elkar trukea izan da, izan ere, dagoen hilabeteetan Euskal Herriko emakume baseritarren talde bat joanen baita Txileko lurraldeetan emakumeen

eta orokorrean nekazaritzak bizi duen egoeraren berri zuzen zuzenean izateko.

Anamuri elkarteak, emakume aunitzen zutabe bihurtu da gaur egun Txilen. Herrialde osoan banaturik dauden hainbat indigena herrietako emakumeak biltzen baititu. Bortz urte daramatzate lanean eta hasieran bezala, beren helburua justizia eta berdintasuna lortzea da. Horrela irakur daiteke beraitetako aunitzen elastikoetan: «*Emakume Nekazariak justiziazko eta berdintasu-*



ARGAZKIA: IBAN ISASI

Euskal Herriko EHNE eta Txileko ANAMURI (Emakume Indigena eta Nekazarien Elkarte Nazionala) elkarteko kideak ageri dira Iturenen.

nezko mende bat lantzen».

HAMABI HERRI INDIGENETAKO PARTAIDEAK

Txileko hamabi herri indigenetako partaideak daude Anamuri elkartearen, bertzeak bertze: maputxeak, aimarak, huillitxeak,

Egun beren herrietan dituzten arazoei buruz galdetuta, Iparraldean minek edo mea-

tegiek sortutako kutsadura eta, ondorioz, bizilagunen gaixotasunak, Hegoaldean enpresa hidroelektriko indartsuak burutzen ari diren urtegi handiak eta hauek eraikitzeke egiten dituzten espropiazioak, edo beren lurraldeetako kulturaren, uraren, lurraren eta kultur manifestazio librearen bermatzea edo Gobernuaren aldetik egitan onartzea aipatzen dituzte,


Anamuri eta EHNEren topaketan barnean Euskal Herriko geografia osoan zehar banaturik dauden hainbat nekazari enpresa bisitatzeko asmoa dute.

Bitartean zenbait solasalditan emakume hauekin hitz egiteko aukera izanen da. Apirilaren 3an eta 4an Karrantzako GUVAC kooperatiban elkartuko dira bi taldeotako partaideak.

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxes: 948 580804 - ELIZONDO

ELGORRIAGA

Bidasoako Izokinaren Kofradiak antolatutako Argazki Rallya igandean

Hogeigarren aldiz antolatu du Baztan-Bidasoako argazki rallya

ttipi-ttapa

Bidasoako Izokinaren Kofradiak hogeigarren aldiz antolatutako Baztan-Bidasoako argazki rallya igande honetan, apirilak 6, eginen da Elgorriagan. Izena Irungo Asociación Fotográfica Irunesari (943 621761) edo Victor Urrari (943 624691) eman behar zaio. Partehartzaileek 21 euro ordaindu beharko dute, erroilua, errebelatzea, Bidasoako Izokiaren Elkartearen egoitzan eginen den bazkaria eta oparien zozketa barne. 16 urte arteko partehartzaile gazteek 12 euro ordainduko dute eta laguntzaileek 18 euro (bazkaria eta oparien zozketa barne). Kontrola eta irteera 9:30ak eta 10:30ak artean eginen da Elgorriagan bertan. Ibilbidea eta gaiak ateratzeko orduan adieraziko dira eta partehartzaile bakoitzak gai bakoitzeko diapositiba bat aurkeztu beharko du derrirorez.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Joan den urtean Etxalarren egin zen Bidasoako Izokinaren Kofradiak antolatutako Argazki Rallya, argazkian ageri denez. Eskuinean, Antonio Mangas antolatzailea ageri da. Aurtengoan Elgorriagak hartuko du txanda.

Sariei dagokienez, urrezko, zilarrezko eta brontzezko izokinak emanen dira hiru bilduma onenentzako. Horretaz gain, trofeoak izanen dira gai bakoitzean bi diapositiba onenentzako, puntuaketa handiena lortu duen diapositibarentzako, argazki sorpresarako proposaturiko gaia hoberen lor-

tu duen diapositibarentzako, gazteek egindako hoberenantzako eta kofradiako eta AFiko kideek egindako argazki onenentzako. Aurtengoan hogeigarren edizioa beteko du argazki rallyak eta sari berezia zozketatuko da, Rallyan parte hartzeaz gain bazkarira joaten direnen artean.

Antonio Mangas, Bidasoako Izokinaren Kofradiako kidearen erranetan, Irunen egoitza izanik, lehendabiziko edizioetan inguru horretan egiten zen argazki rallya, «*baina Bidaso askoz gehiago denez, azkeneko hiru urteetan Sunbilla, Etxalar eta Elgorriagan egin dugu ekitaldia*».

EZKURRA

Behiansoron bazkalekua egiteko proiektua onartu da

Peio ZESTAU

Behiansoro inguruan bazkalekua (pastizala) egiteko proiektua prestatu du Udalak. 14 hektareako azalera izanen du eta 27.000 euroko (lehenengo 4.500.000 pta) aurrekontua izanen du. Aziendak ura edateko bi edo hiru aska ere jarriko dira. Hitzez esan duenez, Nafarroako Gobernuak %60ko dirulaguntza emanen du.

Zumarrestan bidea

Iberdrolak Zumarresta inguruan bidea egiteko eskaera aurkeztu dio Udalari. Bide horretan botatzeko lur eskaera (20 tona gutxi gora-behera) ere egin du. Obra guzti hauek, bertako zentralera doazen bi ur-hodietatik bat aldatzeko dira. Eskaera onartu du udalak, baina hodia berriazaren aurrekontua aurkeztu behar du Iberdrolak, dagokion zerga (%5a) kobratzeko.

Ezkontza

Martxoaren 22an Toki-Edereko Marikruz ezkondu zen Donezteboko Luis Marirekin. Ezkurra Elizan izan du zen ezkontza eta Berastegiko Kakonean bazkaldu zuten. Donezteben etxe dotore bat egina dute eta bertara joanen dira bizitzera. Zorionak beraiei eta beraien familiei.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



ARANO



ARGAZKIA: KONTXI KLABER

Azkenean bukatu dira Suroko bidearen zolaberritze lanak. Kosta baldin bada ere, errepide txukuna eta zabala gelditu zaie auzotarrei.

Suroko bideen zolaberritze lanak bukatu dira

1977an eman zitzaion lehen aldiz galipota lehengo gurdi bideari

Kontxi KLABER

1977ko maiatzean lehen aldiz konpondu zen Suro auzoko gurdi bidea, halaxe bait zen ordu artean. Bertako jendeak "auzo lanean" egin zituen lanak eta kotxeren bat edo beste besterik ez zen bertatik pasatzen garai hartan. Aipatutako urtean sekulako makinaria sartu eta erruz zabaldu zen errepide hau, harri soltea edo grabilla bota eta gainerik galipot likidoa botata utzi zuten. Orduaz geroztik kotxe kopurua ederki ugari da, naihiz auzotarrenak nahiz kanpokoak.

Berritu eta urte gutxira beste konponketa baten premia izan zuen,

urak eraman baitzuten bide zati batzuk, erortza batzuen ondorioz. Beraz, hau erreformatu behar izan zen, berriz ere zola berrituz eta urak ongi kanalizatuz.

1999AN EGIN ZEN LEHEN ZATIA ETA ORAIN BUKATU DA BIGARRENA

1999 urtea bitartean ez zen beste lanik egin bide honetan. Urte hartako azaroan hiru bat kilometroko bidearen erditsua zola berritu zen galipotarekin eta orain moldatzeko falta zen bidearekin bukatu da.

Beraz, denbora denbora pasatu baldin bada ere, errepide ederra gelditu zaie Suroko auzotarrei.

ERRETIRATUAK

Maiatzaren 2an Lourdesera bidaia egingen du Arkupeak elkarteak

Galiza eta Portugalera hamar egunerako joanen dira

ttipi-ttapa

Apirilaren 3an Erribera bisitatu ondotik, apirilaren 23an gimnasia erakustaldia egingen du Arkupeak elkarteak Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, ale honetako erreportaiari luze eta zabal ageri denez.

Maiatzaren 2an, berriz, Lourdesera egun bateko bidaia egingen du Arkupeak elkarteak. Izen ematea apirilaren 1etik 10ea egin behar da, 20 euro ordainduduz. Arkupeak elkartearen nahia eri daudenak eramatea da, hau da, bere baliabideekin ibili ezin diren pertsonak. Jende honen bidaiaren kostea Arkupeak elkarteak hartuko du bere gain, baina derrigorrez ezinduz arduratuko den senide batek joan behar du, eta Lourdesen barna ibiltzeko garraiobidea, aulki gurpilduna edo behar



duena, eraman behar du. Senideek bidaia ordaindu behar dute. 11:30etan Arkupeak taldearentzat meza aadituko dute Saint Joseph kaperan. 13:15etan bazkalduko dute Acadia eta Florida hoteletan. 15:30etan arrosarioa errezatuko dute Saint Joseph kaperan, 16:30etan erien prozesioa izanen da eta prozesioa akaututakoan, 18:15etan, autobusen irteera hotelen atetik.

HAMAR EGUNEKO BIDAIA GALIZIA ETA PORTUGALERA

Akautzeko, Arkupeak elkarteak ekainaren 4tik 13ra hamar egunerako bidaia egingen du Ga-

lizia eta Portugalera. Bidaia bi urtetik behin egingen badute ere, aurtengo inoiz baino gehiago bat egin nahi dute bertakoekin.

Ekainaren 4an egingen dute bidaia, ekainaren 5ean, inguruan paseoak emanen dituzte, ekainaren 6tik 12ra ateraldi ezberdinak egingen dituzte autobusekin, La Toja, El Grove, Ria de Arousa edo Portugaleko Valemça Tuy aldetik bisitatu. Vigo eta Santiago de Compostela ere bisitatu dituzte. Ekainaren 13an itzuliko dira. Bidaiaren egindako otorduak zein Galiziakoak, Arkupeak elkartearen kontura izanen dira.



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

GOIZUETA



ARGAZKIA: PILI

Argazkiko hauen eta beste askoren babesa jaso du martxoaren 15ean urkeztutako «Goizueta bizirik» izeneko herri plataformak.

Egunkariaren aldeko barrikotea asteburu honetan egingen da

Garai bateko kuartelean Zaharren Egoitza egingo du Udalak

Esteban AROTZENA

Erakunde ezberdineko herritarrek urtero antolatzen duten barrikotea aurten Egunkariaren aldekoa izanen da

eta larunbat honetan, apirilaren 5ean, egingen da. Festa eta Euskal Herriko aldarrikapenak ezin hobeki uztartzen ditu arrakasta ederrarekin

garaisu honetan urtez urte burutzen den afari honek. Orain dela bi urte, esaterako, orduan Goizuetan barrena igarotzen zen Korrikaren

aldekoa izan zen; izaz Zuberoara joan ziren sobratutako euroak eta larunbat honetakoak, esan bezala, Egunkariarentzat izanen dira.

FLASH

Zaharren egoitza «kuartel» zaharrear

Berritutako «kuartel» zaharrear udalak duen lokalean zaharrentzat egoitza egiteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik oraindik ziurtatu ez bada ere, obraren kontratazio deialdia luzatu du Herriko Etxeak. Beraz, ia 63.000 euroko aurrekontua duen proiektua emandakoan lanak hasi egingen dira. Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain egon behar da bien bitartean, zenbateko dirulaguntza ematen duen jakin ahal izateko.

Erakusketa Ganbaran

Gipuzkoa eta Lapurdi-ko 25 artisten lanak —margoak, eskulturak, etab...—ikusgai egonen dira apirilaren 14a arte Herriko Etxeko Ganbara kultur aretoan.

ARESO

Emakumeen Eguna afari batekin ospatu zuten

Hiru bataio batera egin dira igande honetan

Juana Mari SAIZAR

Martxoaren 7an Emakumearen Eguna ospatu zuten eskolako gimnasioan afaria egingez. Larunbata izanik, jende mordoxka hurbildu zen eta lasaitasunez gozatu zuten.

Sutea

Belako aldeko mendian, Trintxeleku inguru suak erre zuen mar-

txoaren 22an. Altsasuko parkeko eta Leitzako su-hiltzaile boluntarioek itzali zuten. Pago, haritz, gorosti eta gaztain arbolak erre ziren.

Hiru bataio batera

Unai, Ruben eta Aimarren bataioak martxoaren 30ean ospatu ziren. Oso gutxitan suertatzen dira hiru bataio

elkarrekin egitea horrelako herri txiki batean. Herriko beste umeak kontentu, goxokiak eta dirua hirukoitza izan baitziren.

Donostiako Izotz Jauregira

Martxoaren 28an Donostiara joan ziren eskolako umeak, Txuri Urdin izotz jauregira patinatzen ibiltzera, Bazkal



ARTXIBOKOA

laz Uxue eta Olaiak batera egin zuten bataioa. Igan- de honetan hiru mutikoren txanda izan da. Hiru aldiz goxoki eta diru gehiago bildu dute umeek.

ondoren, Urgull mendira igo ziren.

Sendotza

Sendotza egiteko garaia heldu dela eta, herriko bederatziko gazte

prestatzen ari dira eta Otsagiko beste gazte-ekin batera elkarbizitza izan zuten martxoaren 21, 22 eta 23an. Beraien etxeetan gonbidatu gisa hartu zituzten.

LEITZA

Drogari buruz ariko dira larunbatean Etxarri-Aranazko Gazte Topaketan

Birziklailak goruntz egin zuen joan den urtean Ecogras-en arabera

Mikel ILLARREGI

«Drogak, droga-menpekotasunak, gazteria eta Euskal Herria» lelopean, apirilaren 5ean (larunbata), Etxarri-Aranazko Kultur Etxean egingo dira Gazte Topaketak. Jardunaldi hauen helburua, droga-menpekotasunen fenomenoari buruzko eztabaida bultzatzea da, baita gazteek erabakiak hartzea eta proposamenak zehaztea ere.

Egitarauari goizeko 10:30etan emanen zaio hasiera. Ondoren, taldetan, eztabaidak burutuko dira eta asanblada batean azalduko dira asosutako puntuak.

Bazkal aurretik, antzerki talde batek ondorioak antzetzuko ditu. 17:00etan Rekoloklown Oihulari taldeak, «Berriro kolokatu behar al dugu?» lana eskeiniko du.

Leitza, Irurtzun, Etxarri eta Altsasuko prebentzio programak, herri hauetako gazte taldeak eta Euskal Herriko Askagintza taldeak antolatu dute topaketa.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Martxoaren hasieran Larrain plataformaren aurkezpena egin zen herrian. Autodeterminazio Eskubidea eta lurraldetasuna (Aturri eta Ebro ibaien arteko

Esan beharrik ez badago ere, interesa duen edozein gaztek parte har dezake, aldeztu aurretik herriko gizarte zerbitzura deituz (948 510683 - 948 510840) izena emateko.

Birziklaila goruntz

Ecogras olio bilketa-rako enpresak eman dituen datuen arabera, 2002. urtean zerbitzu

hau erabili dutenen kopurua ederki egin du gorantz aurreko urtearekin konparatzen badugu. Duela bi urte 877 pertsona baziren, iaz 1.497. 2001. urtean 1.075 litro eman bazuten, iaz 2.005 litro bildu ziren.

Bestalderetik, laster enbaseak ere bilduko dira, ondoren birziklatu ahal izateko. Nafarroako Gobernuak gai ho-

netako arduradunekin bildu ondoren, enbaseak biltzeko kontenedore horiak jarriko dira.

Kopuru eta datu hauek onak badira ere, papera edo kartoiaren bilketan (kontenedore urdinak) ardura gehiago izan behar dugula ohartarazten dute udaleko arduradunek, biltzen den guztia aprobetxagarriagoa izan da.

FLASH



Suteak

Beroarekin batera eta haizea lagun suteak hasi dira, beste urtetan baino lehenago. Honek guztioi arreta berezia eskatzen digu.

Basozain baten bila

27 pertsona dira, basozain lanpostua betetzeko oposaketa-lehiaketan parte hartu ahal izan dutenak. Joan den astean euskara frogara egin zuten eta orain frogara teorikoa eta praktikoa egin beharko dute. Azkenean udalak basozain bat izanen du bere plantillan.

Korrika 13

Aurten ez da Korrika herriko pasako. Hala ere, aurtengo edizioan ez da ahaztuko hamar egunez, gau eta egun, 2.150 kilometroko ibilbidea betetzeko, euskararen aldeko mezua zabaltzeko egin beharra. Apirilaren 7an, dena den, Betelutik heldu dela Lekunberritik goizaldeko 4:50etan pasako da. Ondoren, Larrungo herrietatik igarota Irurtzunera joan da (goizeko 6:43etan). Ea zenbat animatzen zareten!

Egunkaria

Egunkariaren aldeko ekimenetan, orain, tabernetan salgai jarriko diren txapa eta pegatinaz gain, bonoak (50 edo 300 eurokoak) eta kamisetak aurki daitezke Euskara Zerbitzuan.

KIROLA

XXV. Herri Krosa apirilaren 13an antolatu du Aurrera Elkarteak

Apirilaren 13an, igandearekin, Aurrera elkarteak antolaturik burutuko da ohiko herriko krosa. Aurten hogeita bosgarrena izango da. 10:15etan benjaminak aterako dira; 10:30etan alebin eta infantilak eta 11:15etan proba na-

gusia: kadete, junior, senior eta beteranoak. Sari guztien artean, dominak eta kamisetak izango dira guzientzat. Senior mailako marka hausten duenak (hamar kilometro, 29:49) 160 euro jasoko ditu. Sariak sari, bertan parte



Parte hartzea da saririk onena.

hartzera eta bukatzen saiatzea izanen da saririk handiena.



PERTSONAIA Iñaki URRUTIA

Victor Ullateren dantza konpainiako kidea

23 urte ditu Arraiozko Altxuartea baserriko Iñaki Urrutiak eta Victor Ullateren dantza konpainia famatuko kidea da. «*Beti gustatu zait dantza egitea, baina ez nuen uste dantzatik biziko nintzatekenik*». 16 urtetan hasi zen Baztango Dantzarekin eta 18 urte egin arte ez zekien deus dantza klasikoaz: «*Iruñeko Almodena Lobónen eskolan hartu nuen lehen klasea, Mari Cruz Goñiri esker. Beregatik ez balitz ez nintzateke orain Madrilen egonen*». Bigarren urtea du Madrilan, dantza ikasketak egiten. Horretarako Nafarroako Gobernuaren beka ere badu. «*Horrek lasaitasuna ematen dit, bakarrik dantzan ari bainaiz*».

BAZTAN

Hirurteko Planeko zenbait inbertsio egingen dira 2004an

Purioseneako Museo Etnografikoa apirilaren 14an irekiko da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak onartutako Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean, zenbait inbertsio egingen dira 2004. urtean Baztanen. Plan zuzendarien barnean, hiri hondakinen bilketarako 31.853,64 euro inbertituko dira, 21.035,42 euro 1.200 litroko zaborrontzi berdeak erosteko eta 10.818,22 euro papera eta kartoia bilitzeko 2.500 litroko zaborrontziak erosteko. Herrietako programazioari dagokionez, Oronoz, Lekaroz, Elizondo, Elbete, Amaiur, Azpilkueta, Erratzu eta Arizkungo argi publikoak berritzeko 293.492,24 euroko inbertsioa egingen da. Balleko Etxeko teilatua eta aitzinaldia moldatzeko 31.691,37 euro inbertituko da eta Hirurteko Planetik oraindik egin gabe gelditu diren herrietako bideak moldatzeko 38.032,05 euro. Lan hauek egiteko borondatea duela jakinarazi du Udalak.



ARGAZKIA: D.NOTICIAS

Elizondoko Puriosenean egingen den Museo Etnografikoaren proiektuaren berri ematen ari dira bertako eta kanpoko jendeari. Martxoaren 20an Susana Irigarai, Nafarroako Museo Etnografikoko zuzendaria izan zen argazkian ageri denez. Martxoaren 25ean, berriz, Juan Garmendia Larrañaga antropologo famatua izan zen bisitan. Baztango Museo Etnografikoa apirilaren 14an irekiko da ofizialki.

Luberriak

Aziendak bazkatzeko luberriak aterako ditu Balleko Udalak herri lurretan. Juan Mari Galarregi Elizagoienek egingen ditu lanak, 23.025 euroren truke. Nafarro-

ako Gobernuak 15.086 euro ordainduko ditu.

Agozpeko zabortegia ixteko lanak

Balleko Udalak Agozpeko inguruan zegoen za-

bortegia ixteko kontratua egingen du. Publizitaterik egin gabe, prozedura negoziatuaren bitartez emanen da kontratua. Lanen aurrekontua 20.413 eurokoa da.



asnáp.me
servicio conectado a la persona y a sus necesidades

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Gortxoak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igehseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Gortxoan asesoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aitortpenak

DOMEZTERE
Itza Semerik, 4 bilak
Tlfno: 948 41 832 Tlfno/Fax: 948 41 8418
web: herriherri@asnappme.com

ELIZONDO
Santxo, 31 bilak
Tlfno/Fax: 948 580 506
elzondo@asnappme.com

LEZUZA
Santxo, 1 bilak
Tlfno: 948 26228 Tlfno/Fax: 948 262141
lezuzer@asnappme.com



BAZTAN FUNERARIA

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• ☎ 948 580373 • 608 776176



Josune Iturzaeta Barnó elizondarrak egindako kartel koloretsu honek iragarriko du Baztandarren Biltzarren 40. edizioa. Guzira 22 lan aurkeztu ziren eta ttipi-ttapan diseinu lanak egiten dituen elizondarrarena izan zen onena Itziar Mena eta Xabier Ballarena diseinugileek, Ana Larruy eta Camino Ezeberri margolariek eta Baztandarren Biltzarrako Maider Nabarro eta Iñigo Azkaratek osatutako epai-mahiaren arabera. 1999an eta 2000. urteko kartel irabazleak ere «Totu» Iturzaetak egin zituen.

FLASH

Kultur ekitaldiei dirulaguntza

Baztango elkarteek 2003an antolatu edo antolatuko dituzten kultur aktibitateak egiteko dirulaguntza izan nahi badiute, apirilaren 4ko arratsaldeko 2 orduak artio dute hondar eguna eskaera-orria Baztan Balleko Etxeko Erregistro Nagusian sartzeko. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: diruz laguntzea nahi dituzten aktibitateen memoria eta gastuen eta diru-sarrerren aurrekontua.

Elizondoko trafikoa araudian aldatzeko

Duela hiru urte, Elizondoko trafikoa arautzeko zenbait erabaki hartu zituen Balleko Udalak. Orain, aldageta batzuk egingen dira. Hone-la, Jaime Urrutia karrikan aparkatzea debekatu dute Merkatuko Plazako atetik bainu publikoa bitartean. Zirkulazioaren norabidea ere aldatu egingen da Paulina denda zegoen lekuan: Santiago karratik Jaime Urrutiara joaten ahal da, baina alderantziz debekatua egonen da. Ikastolako parke ingurua norabide bakarreko ibilbidea izanen da, Jaime Urrutiatik Mendinueta karrika aldera.

Iruritako Gizarte Zentrua egiteko lanak hasiak dira

Dirulaguntzak eskuratzeko urte honetan akitu beharko da

ttipi-ttapa

Martxoan hasi ziren Iruritako Gizarte Zentrua egiteko lehen dabilak. Lanen aurrekontua 390.213 eurokoa da eta eraikuntzaren bi solairuek 560 metro koadro izanen dute: behegian ostatua, joku-aretoa eta komunak egingen dira eta lehen dabilatik solairuan, 200 lagunendako lekua izanen duen aretoa, eszenatoki eta proiektio-

etarako pantaila batekin. Maribel San Jose Iruritako alkateak aipatu duenez, proiektu honetan 1998 urteaz geroztik ari dira lanean. Bertan Aranabia kirol elkarte, San Miguel txirindularitza elkarte, laxoako taldeak, dantza, antzerki edo gazte taldeak eta Guraso Elkar-teak biltzeko asmoa azaldu zuten orduan. Zenbait leku aztertu ondoren, azkenean Dorre-

aren beheko aldean dagoen eremua hartu zuten, Gure Kaiola elkar-tetik eta plazatik hurbil.

Ungar igeltsaritza enpresak gauzatu du Mariano Oteiza arkitek-tuak idatzitako proiektua. 390.213 euroko aurrekontutik, 150.000 euro inguru, %40, Nafarroako Gobernuko Gizearte Ongizate, Kirol eta Gaztediaren Departamentuak ordainduko du. Bertze %60a Baztango

Udalaren eta Iruritako herriaren artean ordainduko dute. Irurita-ko alkateak aipatuakoa-aren arabera, «lanak urtea akitu baino lehen akitu behar dira, beharrezko ziurtagiriak hartu eta dirulaguntza eskuratu ahal izateko. Herriko bestetarako teiltatu emana izanen dela se-gurtatu didate». Bitar-tean, kargodunekin ba-ntera bertze gizarte zen-truak bisitatzeko ari da.

LARRALDEA SAGAROTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121

ANTXITONEA Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

onegin
Herbodieterico Ekodenda
• ZERBITZUAK:
• DIETISTA
• NATURISTA
• PRODUKTU EKOLOGIKO
• PRODUKTU NATURALAK
• PRODUKTU ARTISAUAK
www.onegin.net • ELIZONDO
Tel: 948 581 812

LAGUIRE arkitektura
OBRA PROIEKTUAK
Etxe berriak eraikitzeko
Birmoldaketak
Aktibitateak
Hirigintza
649 95 94 14
NABARROAN ETA GIPUZKOAN

KIROLA



ARTXIBOKOA

XIII. Josetxo Ezkurra Memoriala prestatu du Txaruta elkarteak

Izen emateak apirilaren 15a baino lehen egin behar dira

tti-pi-ttapa

Malerreka eta Baztan aldeko pilotari gazteak prestatzen dituen Txaruta elkarteak hamahirugarren aldiz antolatu du Josetxo Ezkurra Memoriala. Doneztebek eman duen esku pilotari onentsuena izan zen Jose Ezkurra, Koteto Ezkurra erremon-telariaren aita, eta bera bizi zenean hasi zen txapelketa jokatzeko. Hil zenean, Memorial izena hartu zuen.

Aurten zenbait gora-behera izan dira eta txapelketa Erreka elkarteak antolatzeke aukera aztertu zen. Baina azkenean, aitzineko hamabietan bezala, Txaruta izanen da antolatzailea. Aurrebenjamin mailatik hasi eta helduak bitarte, hainbat kategoriatan banatuko dira pilotariak. Txapelketa apirilaren

20an hasiko da. Izen ematea apirilaren 1etik 15a arte zabalik dago.

IX. Paleta-goma txapelketa

Doneztebeko Erreka elkarteak paleta-goma txapelketa antolatu du bederatzigarren urtez, Doneztebeko Udala, Malerrekako Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuo Kirol eta Gazteria Saila, Santesteban Tailerrak eta Santesteban Gasolindegia- ren laguntzaz. Izen ematea apirilaren 9a baino lehen egin behar da 948 450144 telefonoan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu. Kontuan hartu behar da inskripzioa ordenaz onartuko dela eta hogeitak bertzetik ez direla onartuko. Txapelketa maitza eta ekainean jokatuko da. Sarietara

gokienez, txapeldunek 240 euro, txapelak eta trofeoa jasoko dituzte. Bigarrenak 120 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 60 euro eta trofeoa.

Herri Kirol Federazioaren batzarra

Nafarroako Herri Kirol Federazioak martxoaren 22an egin zuen urteko ohiko batzarra Sunbillan. Iazko ekitaldiak eta kontuak onartu ziren eta aurten eginen diren ekitaldien eta aurrekontuaren berri eman zen. Aurten, 135.186,47 euroko aurrekontua izanen du Federazioak. Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketa eta gizon proba txapelketa antolatzea egokitu zaio Nafarroako Federazioari, baina azken hau bertze batekin aldatuko da, Na-

farroan ez baita proba- lekurik. Batzarreak Nafarroako harrijasotze txapelketako lanak aldatzea onartu zuen: 2 minutuko txandak 100 kiloko bolarekin, 112 kilo terdiko kubikoarekin eta 125 kiloko zilindroarekin eginen dira.

Azkenik, batzarreak gogor salatu zuen Egunkariaren itxiera eta bere elkartasuna adierazi die langileei eta beraien familiei. Federaziokideen ustetan, adierazpen askatasuna eta euskararen aurkako eraso larriak izan dira. Modu berean, tortura salaketan inguruan, gertatutakoak argitzea eskatu du. Prestatzen ari den proiektu berriari bere laguntza osoa eskaini nahi dio Federazioak, beharrezkoa ikusten baitu euskarazko komunikabide bat gure gizartean.

Aurten ere hainbat pilotari gaztetxo ariko da Josetxo Ezkurra zena- ren omenez apirilaren 20tik aitzinera jokatu- ko den txapelketan. Txaruta elkarteak hamahirugarren aldiz antolatu du txapelketa hau.

PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

SENPERE

Xare zuzena izanen da 7. Open pilota lehiaketako berritasun nagusia

16 lagunek barauldi batetan parte hartu zuten presoen alde

Franck DOLOSOR

Gantxiki kiroldegia pilotarien topaleku nagusia izanen da apirilaren lehena eta 6a artean, egun horietan Open pilota txapelketako zazpigarren ekitaldia ospatuko baita.

Horko berritasun nagusia da gizon eta emazteek xare zuzenean ariko direla gomazko paletako jokoa. Entsegu hori egitea deliberatu dute antolatzaileek partidak ikusgarriagoak izan daitezen, azken urteetan mitxa guti delakotz publikoaren ustez.

Aste batez, partida ederrak jokatu dituzte gure herrirat etorriko diren kirolariek. Hauen artean, Uruguaioko Hernandez eta Bareiro, Iruñan zilarrezko domina eskauratu zutenak egonen dira, bai eta munduko txapelkunak Miro eta Cimadamore. Nesken sailan, Leiza eta Housset favoritoak dira bainan nahiko lan izanen dute Argentinako



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Open pilota txapelketako antolatzaile batzordea, herriko etxean.

Stelle eta Schettino edo Muñeta eta Mendizabalen kontra aritu behar harko baitute.

Antolatzaileen ustez, aurtengo Opena iazkoa bezala izanen da partaide berak izanen direlako. Dena den, Kubako jokalaririk ez da Senpererat etorriko. Waltari pilotaria gurean ez izatea damutuko dira pilotazaleak.

Partidak ikusteko jarlekuak erreserbatu behar dira Turismo Bulegorat deituz 0559541169.



Martxoaren 16an, partaide berriak sartu ziren Amorroinaren kofradian, hauen artean Beñat Antxordoki Saint-Christophe laborantza ikastegiko zuzendaria eta Christine Sanchette-Lanette notarioa.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

FLASH

Presoen aldeko gose greba Oxtikenean

16 lagunek gose greba bat hasi zuten presoen alde martxoaren 17an. Aste batez, hamasei lagun egon dira Oxtikenean eta 22ko asteburuan bertze sei juntatu ziren. Egun horietan, euskal presoen egoeraz solastu ziren beren familiek milaka kilometro egin behar baituzte bitartak egiteko.

Angelun galdu egin zuen SPUC errugbi taldeak

Errugbian, partida ederrak jokatzeko azken aldia SPUCeko mutilek bainan martxoaren 23an Angelu nagusitu zitzaizoten 26-24. Halere, lanean segitzen dute tinko.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunenekin Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak
© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia • Asma • Buruko mina • Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia • Zizareak • Prostata, etab...

<p>IKUSMENAREN BERRESKURATZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Miopia • Bista alfertua • Estrabismoa • Begi lausoak-kataratak 	<p>GIHARRE ARAZOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bixkortzea • Artritia, erreuma • Artrosia, Lunbalgia • Bihurdurak, etab...
--	---

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

AZKAIN

Korrika badator larunbat arratsaldean

Hamahiru elkarteren artean partekatu dira 8 kilometroak

Ihintza, Angela eta Eneko

Gehienetan gertatzen den bezala Korrikak Iparraldea asteburuan zeharkatzen du. Eta Azkainen tenore egokian iraganen da ahal bezainbat jende biltzeko. Apirilaren 4an abiatuz Mauletik, Azkaingo herritik barna ibiliko da.

Aurten 8 km bete beharko dituzte Azkaingo elkaratek. Egia erran lehen kilometroak Senpereko eremuetan eginen dira. Lehen hitzordua 14:53etan finkatua da. Huna ibilbidea eta lekukoa hartuko duten elkarteen zerrenda: 14:53 Elgarrekin eta Azkaindarrak Bat (201 behitegi haundiaren ondoan); 14:59 Altxalili (202 zikin untzien ondoan den parkina tikia); 15:05 Gemuku eta Orduan (203 La Nivelte kanpina); 15:11 Herriko Etxea (204 Azkaine sarrerako bide seinalea); 15:17 Ikastola, Eskola

publikoa eta Eskola Pribatua (205 Eskola publikotik 200 metrotara, egurrezko seinalea); 15:23 APE eta Ikasleak (206 Ingurabidea); 15:29 Ideki (207 Azkaine bikaerako bide seinalea); 15:35 Gau Eskola (208 Serres inmobilierr iragarkian).

Aratzentzat 17 urte eskatu dituzte oraikoan

3 urte eta erdi kartzelan iragan ondoren Aratzen kasua ez da oraino finkatua eta ez da finkatzekotan oraino. Iragan alean sententzia ezeztatua izan zela aipatzen genuen. Epaiketa Gorenak 18 urteko zigorra ez zuen egokitzen. Audientzia Nazionalak orduan 17 urteko zigorra eskatu du berrikitan. Orain berriz Epaiketa Gorenaren erantzunaren beha egon beharko da.

Aktualitate horren inguruan Orduan elkar-



ARGAZKIA: ANGELA JORAJURIA

Mus xapelketa

Mus xapelketa batek bertzea gordetzen du. Union Basque xapelketako emaitzak atera berriak dira eta jadanik bertze xapelketa bat jokatu dela jakinarazten dute Plazan ostatuan. Oraikoan Nafarroa Oinezan karietarat egiten da lehiaketa Apirilaren 4an arratseko 8etan.

ak urteroko bazkaria antolatzen du kiroletan. Apirilaren 12an egiten da larunbatarekin. Zintzur bustitze alaitua, bertsolariak eta antzerkiarekin animatuko dute bazkaria. Arratsean kontzertua antolatuko da, behar bada Pako Ta Mari Eder eta Zipotzero taldeekin.

Bigarren arteen foruma

30 bat artistaren obrak ikusten ahalko dira Bil Tokin apirilaren 9tik 16erat. Artistak Azkaindarrak dira bainan

ere Hazpandarrak, Bai-narrak, Donibandarrak... Arteen foruma Azkaingo Turismo bulegoak antolatzen du.

Errubialariak finala erdian Sararen kontra

4 taldeetarik batto kanporatu behar zen finala erdietan parte hartzeko. Xiberuko Mendikota taldea ez da kalifikatu Azkaindarrei tokia utziz. Erdi finalak Martxoaren 30an hasi dira eta berriz ere Azkain eta Sararen arteko matxa ikusten ahalko da bi al-

diz lehena Azkainen bertzea Saran.

Martintxo

Hilabetean behin egiten den bezala Martintxok inguruetakoz kantzule guziak ostatuan biltzeko gomitatzen ditu. Axafila Baitan bilduko dira kantariak apirilaren 11an.

Mutxikoak eta selauru hustea

Apirilaren 12 eta 13ko asteburuan egiten dira hilabeteko selauru hustea eta mutxiko emaldia plazan.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SARA

Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketaren finalak jokatu ziren

Herriko errugbi taldeak Azkainen kontra jokatu du finalerdia

Xan HARRIAGUE

Udaberria hasi zaigu eta denbora berean mus txapelketen sasoina bukatu. Maila nagusian finalerdietan bi ekipa gazte ziren, bi helduagoen kontra, bainan azkeneko horiek esperientziarekin irabazi zuten eta azkenean finalerdiak irabazteaz usatuak diren bi ekipak ukan genituen alde batetik Annde iribarren eta Mattin Pika-bea eta bertzaldetik Jean Marc Azpirot eta Mixel Etxeberri, azkeneko horiek nagusitu zirelarik eta 500 euroko saria eraman zutelarik. 2 garren mailan Jean François Iribarren eta Philippe Lasagak irabazi zuten bildotxa, Arburua senar emazteen kontra. 3 garren mailan Lol Lafitte eta Krixpin Sorouetek irabazi zuten Mirentxu Azkarraga eta

Sandrine Etxegaraien kontra. Partiden ondortik denak mahainera pasatu ziren eta Pettan Elizalde eta Beñat Etxegaraiak prestatua zuten Zikiroa probestu zuten.

Errugbi taldea finalerdian

Azken bi maxetan bat irabaziz Azkainen kontra 9 eta 6 eta bertzea galduz kanboren kontra 33 eta 25 Sarako baturdeak sailkatu dira finalerdiak jokatzeko azkaindarren kontra Lehena matxa Animaineko zelaian izanen da apirilaren 6an eta bigarrena Azkainen apirilaren 13an.

Korrikako kilometroa

Aurten ere korrika ez da Saratik pasatuko bainan saratarrek gure kilometroa Senpereko



SASKI ARGAZKIAK

Museko finalen ondotik zikiroa jan zuten partehartzaileek.



ARGAZKIA: ODILE AYEZ

Dantza taldea eskian eta afaria

Joan den otsailaren 22an, Sarako dantza taldetik 17 lagun joan ziren Gourette estaziora ezkiatzera, Hainbeste lan egin eta hainbeste ikusgarri eman eta hori izan zen urteko oparria zaharrentzat. Handik etorri eta berehala hasi ziren lanean heldu den sasoinarentzat sos pixka bat biltzeko eta afari bat antolatu zuten omordia gela Martxoaren 22an, 80 Jende bildu zen eta umore onean pastu zuten gaurdia.

aintziraren ondoan, Mikelenea etxearen pare-

an, izanen dugu 195garren kilometroa apirila-

ren 5ean arratsaldeko 2ak eta 16 minutuetan.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN
- Ogi artissua, eguneko eta txapeta
JATETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilax erretako jakietan

Okidegi industrialdea - Tfnoa: 948 45 34 01 - 31113 ARIZKUN

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • © 948453060



EZKONTZAK

Miguel Angel Leiza Arozamena eta **Jacqueline Viana da Silva**, Lesaka eta Brasilgoa, martxoaren 22an.
Jose Otermin Etxarri eta **Maria Isabel Arratxea Apezetxe**, Tolosa eta Iruritakoa, martxoaren 15ean.
Agustin Meoki Goñi eta **Elisa Muñoz Amorena**, Elizondokoak, martxoaren 15ean.



SORTZEAK

Eider Apezetxea Gogorza, Goizuetakoa, martxoaren 7an.
Mireia Zozaia Etxeberria, Lesakakoa, martxoaren 11n.
Usoa Agerre Etxebertz, Almandozkoa, martxoaren 11n.
Maialen Cordoba Zubiri, Arizkungoa, martxoaren 9an.
Iker Iturburu Jaurena, Erratzukoa, martxoaren 11n.
Gaizka Arotzarena Martin, Elizondokoa, martxoaren 14ean.
Garazi Sarobe Sansiñena, Elizondokoa, martxoaren 16an.
Maddi Sarobe Herrera, Elizondokoa, martxoaren 18an.
Nahikari Loiarde Oiartzabal, Berakoa, martxoaren 20an.
Carla Urtoegia, Azkaingoa, otsailaren 23an.
Yannick Armand Galardi, Azkaingoa, martxoaren 18an.
Txomin Omar Porroy, Doneztebekoa, martxoaren 14ean.
Iban Larraza Gallego, Doneztebekoa, martxoaren 22an.
Koldo Herrera Urroz, Sunbillakoa, martxoaren 25ean.



HERIOTZAK

Jose Iriarte Pascal, Elizondon, martxoaren 12an, 76 urte.
Jose Luis Cacho Val, Gartzainen, martxoaren 17an, 61 urte.
Francisco Sagastibeltza Bikondoa, Le-karozkoa, martxoaren 22an, 84 urte.
Antonio Irigoien Bergara, Azpilkuetakoa, martxoaren 22an, 84 urte.
Bertrand Elhorga, Azkaingoa, otsailaren 27an.
Marguerite Blois, Azkaingoa, martxoaren 5ean.
Louis Gilbert Malhomme, Azkaingoa, martxoaren 13an.
Sébastien Berekotxea, Azkaingoa, martxoaren 16an.
Jean-François Ruter, Azkaingoa, martxoaren 21ean.
Ferdinand Arrieta, Azkaingoa, martxoaren 23an.
Faustino Rekarte Ibarra, Legasakoa, martxoaren 15ean, 67 urte.
Fernando Lukanbio Maiz, Arantzakoa, martxoaren 18an, 75 urte.
Cayo Lazkanotegi Rubio, Berakoa, martxoaren 20an, 70 urte.
Martin Altzugarai Telletxea, Lesakakoa, martxoaren 24an, 68 urte.
Maria Gomez Agirre, Leitzakoa, martxoaren 18an, 94 urte.



Eskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa** para igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



Joseba Andoni
URDANITZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

*Desberdina zen zure bizitza
 Zure heriotza gehiago
 Bihotza estutzen gaitu gure minak
 ixil ixilik zaitugu maitiago.*

*Udaberriak bizia ekarritz
 Zure askatasun modua gogoratzen du
 Zure ametsak buruan izanik
 Zure indarra guria egiten dugu.*

Gurasoak eta senideak



TANATORIO
BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
 Urdazubi eta
 Zugarramurdin
 24 orduko zerbitzua
 tanatorioan eta etxean
 prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

PILOTA

Aimar Olaizola eta Paskual azpitxapeldun eskuz binakakoan

22-15 galdu zuten Koka eta Belokiren kontra

ttipi-ttapa

Juantxo Kokak eta Ruben Belokik irabazi zuten martxoaren 23an Esku Pilotako Enpresen Ligak antolatutako eskuz binakako pilota txapelketa, Donostiako Atano III pilotalekuan jokatutako finalean Aimar Olaizola goizuetarrari eta Iñigo Paskuali 22 eta 15 irabazi ondotik. Partida azkarra izan zen, ordu eskasekoa eta adituek espero zuten lekuan hautsi zen, gibelean. Belokik partida ederra egin zuen eta Paskuali handi xamar gelditu zitzaion bere lehendabiziko final nagusia. Guzira hameka pilota galdu zituen eta bortz sake sartu zizkioten. 9-0 aitzinetik jarri ziren gorriak eta Paskualen hutsakikusiz, bazirudien partida aisa irabaziko zutela Koka eta Belokik. Pixkanaka, ordea, Aimar Olaizola jokoan sartu zen eta 10-13 aitzinetik paratu ziren urdinak. Olaizola gazteak partida ona egin zuen, sartzeko aukera izan zuenean tantu politak egin baitzituen. Sartzeko aukera, ordea, guttitan izan zuen, eta hortxe joan zen partida. Hamalaunako berdinketaren ondotik, gorriak gailendu ziren. Azkenean 22 eta 15 Koka eta Belokiren alde eta bigarren urtez segidan, eskuz binakako txapela Goizuetara eraman ezinik gelditu dira Olaizola anaiak.



ARGAZKIA: D.NAVARRA

Aimar Olaizolak ez zuen laguntza handiegirik izan atzean eta, Koka eta Belokik merezimendu osoz jantzi zuten txapela.

Atsedenerako astirik gabe eskuz banakakoari ekin diote hogeit hamar pilotarik

Eskuz binakako finala oraindik erabaki gabe zegoela aurkeztu zen eskuz banakakoa eta dagoeneko aste hondar honetan jokatu dira lehendabiziko partidak. Jakina denez, iaz finalerdietan izan zen Mikel Goñi oronoztarra txapelketatik kanpo utzi du Enpresen Ligak eta iaz bigarren mailako azpitxapeldun izandako Unai Apeztegia aurtiztarrak jokatuko du.

Txapelketa honek berrikuntza dexente izanen ditu. Finalerdian lidagaxka jokatuko da eta

txapeldun izan nahi duenak guttienez bortz partida jokatu beharko ditu —eskailleraren hasieran daudenak zazpi—. Sistema ez da pilotari gehienek gustokoa, buruz buru hainbertze partida jokatzea gogorra suertatuko delakoz.

Eskualdeko ordezkariak dagokienez, Asier Olaizolak joan den aste hondarrean jokatuko zuen Nagoreren kontra lehendabiziko partida. Irabazleak Zearra-Xala partidaren irabazlearen kontra ariko da. Iaz final laurdene-

tara ailegatu zen Asier, baina aurten behe-behetik ekin behar izan dio. Aimar Olaizola larunbat honetan hasiko da Isarren Imazen kontra. Irabaziko balu, Armenariz-Gonzalez partidaren irabazlearen kontra ariko da. Unai Apeztegia igandean ariko da Kokaren kontra. Rai-Esain partidua irabazten duenaren kontra ariko da garailea. Abel Barriola, gaur egungo txapelduna, final laurdenean sartuko da jokoan, Agirre, Beloki eta Eugi bezala, Aste Santuan.

FLASH

Espainiako emakumeen errugbi txapelketa Lekarozen

Larunbat honetan, apirilak 5, Espainiako emakumezkoen errugbi txapelketaren partidak ikusteko modua izanen da Lekarozen. Finala Iruñean jokatuko baldin bada ere, lehendabiziko partidak Baztanen jokatuko dira. Aipatzekoa da, bertzalde, gizasemeen Baztango errugbi taldea egiten ari den lana. Ultzama eta Baztango errugbilariak biltzen dira taldean eta Nafarroako liga irabazteko aukera handiak dituzte.

Baztan futbol taldea laugarren

Nafarroako Erregionaleko lehen mailan laugarren izan da bere multzoan Baztango talde nagusia. Igoera fasea jokatzeke bi lehendabizikoak sailkatzen zirela kontuan hartuz, bertze denboraldi bat esperatu beharko da Preferentera itzultzeko. Urtetan jokalariz izan den Txema Garaikoetxeak taldea utzi du.

Euskal Herriko txirrindularitza itzulia 10ean

Euskal Herriko txirrindularitza itzulia apirilaren 10ean ailegatuko da eskualdera. Etapa Gasteizetik abiatuko da eta Leitzaan barna sartuko da eskualdean, Ezkurra, Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe, Lesaka, Piedadeko gaina, Igantzi, Berrizaun, Doneztebe, Intxureako bidegurutzua, Saldias Beintza-Labaien, Urrotz, Oitz eta Donamariko Bentan barna igaro ondotik Donezteben izanen du helmuga.

SOKATIRA

Beti Gaztek ezin izan zuen 600 kiloko txapela etxean jantzi

Euskal Herriko txapelketaren final estuan Abadiño garaile

Aitor AROTZENA

Bizkaiako Abadiño taldeak jantzi zituen Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako lehendabiziko bi finalak.

Martxoaren 22an jende ugari bildu zen Lesakako pilotalekuan 600 kiloko finala ikustera. Beti Gazte eta Abadiño A faboritoekin batera, Abadiño B, Ezpeletako Ñapurak, Berangoko Torrekolanda eta Arrigorriagako Altamira lehiatu ziren. Espero bezala, ez Abadiñok ezta Beti Gaztek ez zuten arazorik izan beraien tiraldiak irabazteko. Guzien begiradak eta pentsamendua elkarren artean jokatu beharreko saioan zegoen. Hain zuzen, azkenurreko tiraldia zen Beti Gaztekoentzat eta azkena Abadiñokoentzat. Beti Gaztek honako zortzikotea jarri zuen goma gainean, aitzinetik gibelera: Karmelo Mitxelena, Joxe Angel Mitxelena, Bixente Igarzabal, Oskar Telletxea, Iñaki Igoa, Igor Telletxea, Aledo Sarobe eta Gerardo Telletxea. Antonio Mujika aritu zen entrenatzaile eta Josu Irigoien laguntzaile gisara. Aipatu bezala, etxekoen eta Abadiñoren arteko tiraldie begira zegoen jendea eta bi taldeek ez zuten ikusmin honi hu-

tsik egin. Kirol honetan sobera jakitun ez direnentzat ere tiraldi ikusgarriak eskaini zituzten. Lehendabizikoan erraterako, kasik ordu laurden aritu ziren tiran, hamalau minutu pasaxeak. Bizkaitarrak hasi ziren eramaten, baina Beti Gaztekoek pixkanaka buelta ematen hasi ziren. Talde bakoitzak eramaten zuen zentimetro bakoitza, norbere jarraitzaileen oihu eta animoekin gorai patzen zen. Ez zen aspaldian horrelako builarik somatzen Lesakako frontoian! Tentsioz betetako ordu laurden horren ondotik, Beti Gaztekoek irabazi zuten tiraldia. Leher eginek akautu zuten bi taldeko tiralariek. Beti Gazteko batzuk buelta ezin emanik ere izan ziren. Jendea laguntzen saiatu zen, baina araudiak hori onartzen ez duenez, epaileek nahikolan izan zuten goma ingururik jendea uxatzen.

Baina txapela irabazteko bigarren tiraldia ere irabazi behar zuen Beti Gaztek. Hau ere gogorra izan zen, zazpi-zortzi minutukoa, baina oraingoan bizkaitarren aldera joan zen soka. Beraz, berdinketa hausteko kitarakoa jokatu behar izan zuten eta hirugarren tiraldi hau ere Abadiñok irabazi zuen, txapela lortuz.



ARGAZKIAK: AITOR / LEGARRA

Beti Gaztek herrikoen aitzinean lana gogotik egin bazuen ere, txapela Bizkaia aldera joan zen.

Edu Mendizabal, Abadiñoko entrenatzailea gustora ageri zen txapela jantzi ondotik. Bere ustez, finala etxean jokatzeari ez da etxekoen mesederako izaten, urduriagoa aritzen baita taldea. Bi taldeen lana gorai patu zuen Mendizabalek.

EUSKAL HERRIAN FALTA ZAION TXAPEL BAKARRA

Aipatzekoa da 600 kilokoa dela Beti Gaztek Euskal Herrian sekulan lortu ez duen txapela. Gauza bitxia da,

batez ere kontuan hartzen badugu lesakarrak Munduko txapeldunak ere izan direla kategoria honetan.

Abadiño eta Beti Gazteren ondotik, Torrekolandak osatu zuen podiuma, Altamira izan zen laugarren, Ñapurak bosgarren eta Abadiño B seigarren.

Biharamon goizean, 680 kiloko finala jokatu zen Astigarragan. Beti Gaztek 600 kilotako talde bera atera zuen eta noski, kilo horiek aunitz somatu ziren. Izan ere,

kasik gizon bat guttiago dela erraten ahal da. Harelere, laugarren izan ziren lesakarrak. 680 kiloko txapela ere Abadiñok irabazi zuen, Torrekolandak izan zen bigarren eta Ñapurak hirugarren. Altamira izan zen bosgarren eta Auzolan-Igeldo seigarren.

Aste honetan Orendainen jokatzekoa zen 560 kiloko finala eta Euskal Herriko txapelketa akautzeko heldu den larunbatean, apirilaren 5ean jokatu da 640 kiloko finala Irunen.

AGENDA

egunez
egun

MENDI IBILADIAK

BAZTAN

Apirilaren 6an
Hondarribiara joanen dira
Baztango Mendigoizaleak.

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 13an Baigorriara
ateraldia egingen du Abxuria
mendi taldeak.

ZINEMA

BERA

Apirilaren 3an «El hada
ignorante» filmea ikusgai,
20:30etan Kultur Etxean.

KORRIKA

BORTZIRIAK

Apirilaren 12an antolatu da
Bortzinetako Korrika.
Xehetasunak 14. orrian.

AZKAIN-SENPERE

Apirilaren 5ean arratsaldean
pasako da bi herri hauek.
Xehetasunak 24-25 orrietan.

BAZTAN

Apirilaren 13an sartuko da
Korrika Baztanen Iruritatik.
1:06etan sartuko da Iruritan
eta Baztango zenbait herri
igarota Iruña aldera joko du.

DEIALDIAK

ELGORRIAGA

Apirilaren 6an Bidasoako
Izokinaren Kofradiak
antolatutako XX. Argazki
Rallya. Xehetasunak 16.
orrian.

GOIZUETA

Apirilaren 5ean
Egunkariaren aldeko
barrikotea.

BERA

Apirilaren 12 eta 13an
Txomin Iantzi zenari
omenaldia. Larunbatean
musika jaialdia, bertsolariak
eta afaria. Igandean mendi
ibilaldia Zigorriagara.

TELEBISTAKO TXOKOA



TTIPI-TTAPA KULTUR EKITALDIZ BLAI

Bertso eta haur kantu txapelketak aste honetan

Udaberria hasiera delako edo batek daki zergatik, kultur ekitaldiz aski ongi hornitua izan dugu martxo azken asteburua. Larunbatean, Nafarroako haur kantu txapelketako azken kanporaketa saioa, gure eskualdeari dagokion hain zuzen, egin zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan. Finala larunbat honetan jokatu da Iruñeko Gaiarre antzokian, baina gure eskualdeko kantariak nola moldatzen diren aitzinetik ikusteko aukera izanen da asteazken arratsean, berrien ondotik. Igande arratsaldean berri, Nafarroako bertsolari txapelketako finala jokatu zen Lesakako Zambra

aretoan: Xabier Silveira, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Nerea Artetxe, Xabier Legarreta, Bittor Elizagoien, Estitxu Arozena eta Julen Zelaieta ziren aritzekoak. Ortzirral gauean finala osorik ikusteko modua izanen duzue ttipi-ttapan.

ASTE SANTUAN, PROGRAMA ONENEN ERREPIKAPENA
Bertzalde, Aste Santuko oporraldian ez da ttipi-ttapa telebistan albiste saiorik izanen. Hori bai, azken egunetako berriak ikusteko modua izanen da, urtebetetze eta merkatu ttikiko mezuekin batera eta Xorroxin Irratiko programazioa aditzen den bitartean.

DISKAK



«Gaua iristen den momentuan»

AMBULANCE

OIHUKA, 2003

Euskal Herriko musikari izugarriko bultzada eman zion berbenaren mundutik atera zen banda dagoeneko historiko batek. Itozek, euren pop ukitu nabarmenekin, beritze jokamolde bat erantsi zion entzuleari. Zirrikitu horietako batek talde berri baten sorrerari eman dio bide. Ambulancek maketa bat karrikaratu zuen 2001eko maiatzean. Lan guztia euren esku gelditu zen, entsaiatzeko lokalean egin zuten grabaketa, eskarmentu handiko musikariak baitira. 2001eko ekainean Nafarroako pop-rock lehiaketan bigarren saria eskuratu zuten. Errepertorioa osorik euskaraz izanik lehiaketa honen finalera ailegatu zen lehen taldea izan zen. «Gaua iristen den momentuan» urtarilean grabatu zen Elkar estudioetan, Jean Phocasek teknikari lanak egin zituelarik.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Martxoaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA	BEHIKIA	OHARRA: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.	
Zerrikumea (19 kilo): 23,00 €	Aretze gizenak:	Nabarrak: urruxak 206,00 € eta idixkoak 182,00 €.	
Zerri gizona 0,975 € kiloak.	Idixkoak: €/kg. Kanal	Zaldikoak: €/k	Sortuberriak: 2,75/2,90 Zaldi-behorrak: 1,75/1,86
Zerramak: 0,49 € kiloak, bizirik.	1.koa 3,19	Bildotsak: €/k	6-8 kiloak: 5,25/5,55 8-10 kiloak: 4,30/4,65
	2.koa 3,10		
	Urruxak: Pta/kg. Kanal		
	Extra 3,37		
	1.koa 3,25		
	2.koa 3,14		
	Aretze ttikiak (15 egun ingurukoak):		
	Mestizoak: urruxak 265,00 € eta idixkoak 255,00 €		

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Bista nekatutik operatzea

47 urte ditut eta hurbiletik ikustekobetaurrekoak jarri behar izan ditut. Zergatik? 45 urte inguruan kristalinoak (begi barneko lente naturala) elastizitatea galtzen du eta ezin du bere eginbehar naturala, enfokea, bete. Hori da bista nekatua edo presbizia deitzen duguna.

Posible al da bista nekatutik operatzea, betauurrekoak erabili beharrik ez izateko? Bai, orain posible da, betauurrekorik gabe urrunera eta hurbilerara ongi ikustea uzten duen inplantea erabiltzen da.

Zenbat denborako operazioa da?

Hamar minutu baino guttiago irauten du eta anestesia lokalarekin egiten da.


Minik egiten du?

Ez da oinazetik, ez ebakuntzan ezta ebakuntza ondoko segimenduan ere.

Ingresatu behar da?

Ez, klinikan ordubete edo guttiago egon behar da.

Adin zehatz bat izan behar da operatu ahal izateko?



Ez, ebakuntza egiten ahal da presbizia garatzen hasten denean. Lenteak presbizia guziazuzentzen du eta gero ez da gehiago garatzen.

Zein azterketa egin behar dira operatu baino lehen?

Ikerketa oftalmologiko espezializatua egin behar da, honelako ebakuntzak egiten dituen zirujau oftalmologiko batekin. Proba moderno batzuk egin ondotik jakiten da kirurgia mota honetarako hauta-

gaia den edo ez.

Bistaren bertze akatsak moldatzen ahal dira aldi berean?

Bai, miopia eta hipermetropia mota gehienak moldatzen ahal dira.

Ebakuntzaren ondotik lana utzi behar da egun batzuetan?

Ez, gehienetan ebakuntzaren biharamonean itzultzen dira lanera.

San Juan de Luz Laser

BERAKO KULTUR BATZORDEA	Noiz: Apirilak 4, ortzirala, 19:30etan Lekua: Liburutegian Joan Mari Irigoien solasean <i>Martek «Ipuin batean bezala» azken nobela izanen du mintzagai.</i>
Noiz: Apirilak 3, ortzeguna, Orduetara: Arratsaldeko 20:30etan Lekua: Kultur etxean Zinekluba: El hada Ignorante <i>Fernan Ozpetek zinemagilearen azken lana</i>	Noiz: Apirilak 5, larunbata, 22:00etan Lekua: Kultur Etxean Biblia osoa, gutxi gora behera <i>Txalo antzerki taldeak urteko arrakastarik handienetako bat dakar: Biblia osoa, gutxi gora behera, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Patxi Barko irriz lehertuko zaren lan batean.</i>
	Noiz: Apirilak 11, ortzirala, 19:30etan Lekua: Liburutegian <i>«Estudio demográfico de tres municipios navarros; Bera, Yesa y Sangüesa (siglos XVII al XX)» liburuaen aurkezpena.</i>

ANTZERKIA

BERA

Apirilaren 5ean 22:00etan Txalo antzerki taldearen «Biblia osoa, gutxi gora behera» antzezlanana Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

GOIZUETA

Apirilaren 14a arte Gipuzkoa eta Lapurdiko artisten lanen erakusketa Herriko Etxeko Ganbaran.

SOLASALDIAK

BERA

Apirilaren 4ean, 19:30etan Joan Mari Irigoien solasean liburutegian. «Ipuin batean bezala» bere azken nobela izanen du mintzagai.

Apirilaren 11n, 19:30etan Jesus Sanchez Barricartek egindako «Estudio demográfico de tres municipios navarros: Bera, Yesa y Sangüesa (siglos XVII al XX)» liburuaen aurkezpena liburutegian.

IKASTAROAK

ETXALAR

Apirilaren 7an, 17:00etatik 19:30etara janari erabiltzaile karneta ateratzeko ikastaroa Etxalarko Bentan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Mart.31tik apirilaren 6ra

Bera (m.J. Sanz), Ituren, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Leitza (M.T. Plaza) eta Goizueta.

Apirilaren 7tik 13ra

Bera (M.L. Apeztegia), Doneztebe (S. Larraioz), Elizondo (R. Gezuraga) eta Goizueta.

Apirilaren 14tik 20ra

Lesaka (L. Marin), Narbarte, Elizondo (F. Garcia Mata), Irurita, Leitza (M. I. Larraia) eta Goizueta.

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa iragarkia igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu.

ARANTZA. Herrian bertan, 2 pisuko etxea salgai. ☎ 948 637 040

ELIZONDO. Braulio Iriarte karrikan pisua salgai. ☎ 647 418 661

BULDAIN IRUÑA

Errotxapeko bulevarrean 75 pisu berri salgai. Logela 1, 2 eta 3koak. Garaje plaza eta trasteroarekin. Kalitate handikoak. Udaletxetik oinez 10 minutura. Informazioa eskatu.

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

BULDAIN LEITZAN

Manuel Lasarte Kalean garaje berriak salgai.

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

LEKUNBERRI. Etxe unifamiliarra, 700 m²ko lur eremuarekin salgai. ☎ 948 510299.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

Elizondo Pisua errentan emateko. Txokoto auzoan. Mobleztatua. ☎ 948 451 562.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

DONOSTIA inguruan etxe lasaia errentan hartuko nuke. ☎ 645 706 751.

ETXEBIZITZAK

106 Bertzelakoak

BERA. Pisua konpartituko nuke pertsona batekin zein

ADOS

- Eskatera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
- Edozein herritan badugu zerbitu.
- Leizta: terreno eta pisuak erosten dira.

948 451 841 / 607 978 656

ADOS

- Donezteben obra berriak. Santa Luzia plazanazken 2 apartamentu eta lokal komertzialak salgai.
- Osasun Zentru ondoan pisu berriak salgai.
- Aparan zonaldean pisu berriak eta azkeneko 3 partzela eraikigarriak salgai.

948 451 841

birekin. Gaztea bazara eta elkarbizitza gustoko baduzu dei ezazu. ☎ 948 631188 (Nerea)

GARAJE/LOKALAK

107 Salgai

ELIZONDO. Santiago kalean 200m²tako bajera salgai. Zentrikoa. ☎ 607 978 656

GARAJE/LOKALAK

107 Errentan eman

BERA. Pisua ederra eta nahiko berria errentan emateko da. 100m²koa. Herriaren kanpo aldean, herrigunetik 500 metrora. Kalefakzioa. ☎ 616 244 210

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

LEITZA. Lur sail bat edo belasoro bat erosiko nuke. ☎ 620 529 498

LANA

301 Eskaria

LESAKAN. Emakume bat etxeko lanak edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 653 210 160

Emakume bat etxeko lanak edo pertsonak zaintzen lan eginen luke Lesaka inguruan. ☎ 948 387 018

Neska euskaldun bat etxeko lanak edo pertsonak zaintzen, eta Ostalaritzan lan eginen luke. ☎ 645 711 418

Emakume bat etxeko lanak edo haurrak zaintzen lan eginen luke interna moduan. ☎ 653 210 160 Karina

Emakume bat etxeko lanak, haurrak edo zaharrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 660 663 942 Karmen

Mutil bat eskaintzen da, erakuntzan, granjan edo edozer lanetan aritzeko. ☎ 660 663 942 Hugo

LANA

302 Eskaintzak

Liburutegi laguntzailea 50 lanpostu Nafarroako Gobernuan. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Osasunbidea lanpostu deialdia. Erizain laguntzaile (98), ATS (84), zelariak (36), Zaindariak (26), laborategiko teknikariak (16), gizarte langileak (9). Informazioa Adoz ☎ 948 199 596

Nafarroako Foruzaingoa.

50 lanpostu Nafarroako Gobernuak eskainiak. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Administrari laguntzaileak.

53 lanpostu Nafarroako Gobernuak eskainiak. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Garraiolari Nafarroako Gobernuak gaitze titulua ateratzeko deialdia ateratu du. Adoz ☎ 948 199 596

Gidariak Nafarroako Gobernuak 12 lanpostu eskaintzen ditu. Eskola graduatua. Egizu lan funtzionario moduan: lorezain, atezain... Adoz ☎ 948 199 596

Basozaina. Nafarroako Gobernuak 7 lanpostu eskaintzen ditu. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Auto eskolako irakasle. Lan baldintza ezin hobek, presatu eta lan egin. Langabediarik ez. Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Udaltzaina. Lortu udal lanpostu bat Informazioa: Adoz ☎ 948 199 596

Justizia. Laguntzaile, ofiziale edo agente. Udal epai-



BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

U.C.2an, LEGIA KARRIKAN, XEHEZASUN AZTERLANAREN ALDAKETA HASIERA BATEZ ONESTEA: TX. IRAZOKI

2003ko martxoaren 6an Herriko Etxeko Gobernu Batzordeak egindako bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. TXOMIN IRAZOKI UGARTEMENDIAK aurkeztutako U.C.2an, Legia Karrikan, Xehetasun Azterlanaren aldaketa hasiera batez onestea.
2. Aipatu Xehetasun Azterlanaren, Iragarki Taulan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta, gutxienez, Foru Komunitatean gehien zabaltzen den egunkarietatiko batean aldeaz aurretik argitaratua, 15 eguneko epean jendaurrean jartzeko.
3. Erabaki hau interesatuari eta U.C.2ko beste jabe-iei bidaltzea.

Bera, 2003.02.13
Behin-Behineko Alkatea,
Javier Leiza Oteiza

MENDAUR MOTOR
 © 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
 Terrano 3-5 atekoak, Renault Laguna,
 Montero 3 atekoa, Renault 19 D, Opel
 Seat Marbella, Frontera, Clio D
 SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

WEB ORRIAK KATALOGOAK DIPTIKOAK
 LOGOTIPOAK DOMINIOAK TARJETAK
 KARTELAK PEGATINAK GONBIDAPENAK
 TEL: 948 627 635/626 746 898 E-MAIL: INFO@EKILUR.COM WWW.EKILUR.COM
 ekilur BIKEREN GRAFIKUA ETA INTERNET

tegieta lan egiteko. Deialdiak laster aterako dira.
 Adoz: ☎ 948 199 596

ETXALAR. Zerbitzari bat behar da jatetxean lan egiteko. ☎ 948 635 450

MOTORRA
501 Salerosketak

97. urteko Fiat Bravo HGT 2.020v 147cv gorria salgai. 78.000km. Llanta eta faldoiekin. ASD. Pioneer musika ekipoa. Egoera hagitz onean. ☎ 606 280 895

DERBI SENDA super motard 70cc salgai. Konpetiziorako prestatua. Baita motoko arropak eta serieko piezak. ☎ 679 555 036

Yamaha super Ténerée 600 salgai. Prezio eta egoera onean. Negoziagarria. ☎ 686 913 189

Seat Inca 1400 salgai. Xuria eta 34.000kmekin. ☎ 659 862 417

Moto Onda CR 125cv 1995. urtekoa salgai. ☎ 0034 609 434 650

Fiat 1 Turbo 1.4 118cv salgai. Grrpilak eta konni berriak. 9.000km. Berri berria dago. 1900 € ☎ 645 950771

Volkswagen Passat TDI 110 autoa salgai. ☎ 948 630702 - 616 919 944.

Opel Corsarako OSEIK racing 15" llantak salgai. 195-50-15 kubiartekin. ☎ 948 450 571

ANIMALIAK
602 Salgai

Bi ahari salgai. ☎ 948

634170.

DENETARIK
701 Galdu-aurkituak

ETXALAR. Martxoaren 9an Emakume elkarteko atean mendiko makil bat galdu dut. Makil xuria da eta "Zugarramurdiko Atxuria Mendi Taldea - Koro" du grabatua. ☎ 948 630 629

BERA. Toki Onako apar-kalekuan ortzegun-gizen egunean argazki kamera galdu nuen. Nikon markakoa. ☎ 948 634 045.

ARANTZA. Argazki makina galdu dut Oiargarabideko borda eta lbiltza tontorra artean. ☎ 943 791596.

BERAko poligonoan giltza batzuk galdu dira. 10-12 giltza ditu giltzarian. Aurkitzen dituenak saria

izanen du. ☎ 948 635 166 - 689 702 891

DENETARIK
702 Salerosketak

Musika ekipoa salgai. 2000w, etapa eta kableekin. Egoera oso onean. ☎ 64983 99 22

Pianoa erosiko nuke. Egoera onean egon dadila. ☎ 948 510589.

DENETARIK
703 Bertzelakoak

Neska 1 edo 2 behar dira Iruñeako alde zaharrean pisu bat osatzeko. ☎ 676 934 232

2002-03ko futbol ligaren kromoak aldatuko nituzke. ☎ 948 638 144

IGANTZIKO UDALA

OBRAK KONTRATATZEKO PRENTSAN IRAGARRITAKO PROZEDURA HITZARTUA

Kontratuaren xedea: Igantziko bide publikoak horrigonatzeko lanak.
Kontratatzeko era: Prentsan iragarritako prozedura hitzartua.
Lanen aurrekontua: 51.666,18 euro, BEZa barne.
Lanak egiteko epea: Hiru hilabete.
Proposamenak non eta noiz aurkeztu: Igantziko Herriko Etxean 2003ko apirilaren 11ko eguerdiko 2ak arte.
Kontratista interesatuek proiektu teknikoaren kopia eta klausula ekonomiko-administratiboen pleguaren kopia Igantziko Herriko Etxeko idazkaritzan lortuko dituzte.

Igantzín, bi mila eta hiruko martxoaren hogeita bostean.
 ALKATEA, Eduardo Migelena Legasa

t tipi ttapa harpidetzak 03 tarifa berriak

ESPAINIA	25 €
EUROPA	35 €
AMERIKA	105 €
Baxtan, Bertizarana, Urdazubi, Mallerreka, Leitza-Areso	20 €
Sara, Senpere, Azkain okinekin	30 €
Sara Herriko Etxeko Edantegian	20 €
Bortziriak, Goizueta eta Arano	DOHAINIK

Agenda egunoz egun, ttapi-urtebetetze, ttapi-urtebetetze

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.




ASIER TELLETXEA APEZTEGIA beratarrak urtea bete du martxoaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



JANIRE MARTIN GOIA lesakarrak 3 urte bete ditu martxoaren 26an. Aunitz urtez amatxi Pili, osaba Esteban, osaba Luis eta izeba IAREN partez.



IGOR GURRUTXAGA ERRANDONEA lesakarrak 12 urte bete ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez eta ongi pasa zuren eguna.



ANE ANSO ZUBIETARRAK 5 urte beteko ditu apirilaren 8an. Zorionak eta 5 muxu handi bere familiaren eta bereziki Naiararen partetik.



ANE FAGOAGA MORENO beratarrak 3 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak sorgintxo, atta, ama eta Nahieren partetik.



IVAN GONZALEZ NEOL «pamplonikak» 7 urte beteko ditu apirilaren 25ean eta **VIRGINIA GOIENETXE GONZALEZ** lesakarrak 3 urte apirilaren 3an. Zorionak eta aunitz urtez bi lehengusuei familiaren partetik. Muxu aunitz.



XILVI JAUREGI MORTALEINA oronoztarrek 16 urte bete ditu martxoaren 24an. Ongi pasa G.rekin. Afariaren zain nago. Zure lagun Ainara.




AINHOA ETXEGARAI ELGORRIAGA eta **ASIER TELLETXEA APEZTEGIA** beratarrek urtea bete dute martxoaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bana beraien familien partetik.



HARRI MARITORENA TAPIAK 5 urte bete ditu martxoaren 28an. Aunitz urtez zure senideen partez. Aupa Morkotz txiki!



AUNITZ URTEZ eta muxuak Arantzako familia guziaren oartetik.



SARA LA TORRE GOIA. Apirilaren 3an 2 urte beteko ditu gure sorgintxoak. Aunitz urtez familia guziaren partetik, baita bere osabari ere.



IBAI BLANCO PEREZ beratarrak 9 urte bete ditu martxoaren 30ean. Zorionak eta aunitz urtez familia eta lagunaren partetik.



ANDONI ZOZIA URSUEGI urroztarrek 8 urte bete ditu martxoaren 27an. Zorionak anaia Mikel eta familiaren partez.



BEÑAT IPARRAGIRRE OLASAGASTI etxalartarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



ANA ELIZALDE BENITEZ 7 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak atta, ama eta anaiaren partetik.



UCAITZ LARRALDE IBARRA beratarrak 4 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak aita, ama eta Izaroren partetik.



OIHANA LARRALDE eta **IOSU LARRETXEAK** 3 eta 14 urte beteko dituzte apirilaren 2 eta 4ean. Zorionak eta muxu handi bat famili osoaren eta bereziki Endikaren partetik.




MIREN LASAGA GOIENETXE etxalartarrak 8 urte beteko ditu apirilaren 11n. Aunitz urtez izeba, osaba, Aritz eta Josebaren partetik.




JOSEBA eta **ARITZ IRAZOKI GOIENETXE** etxalartarrak 6 eta 3 urte beteko dituzte maiatzaren 1ean eta apirilaren 21ean. Mila muxu ama eta aitaren partetik.



IRATI LAZKANOTEGI MATXIARENA beratarrak urtea beteko du apirilaren 11n. Zorionak eta muxu bat Andoni, Aitor, ama eta attaren partetik.



BEÑAT ARRAZTOA LAZKANOTEGI beratarrak 2 urte beteko ditu apirilaren 10ean. Zorionak eta muxu bat lehengusuen partetik.



JOSEBA PIKABEA MITXELENA beratarrak 6 urte bete ditu martxoaren 31n. Zorionak Eider, atta eta amaren partetik.



DENIS LEIZA PEREIRA lesakarrak 6 urte beteko ditu apirilaren 18an. Zorionak Unai, ama, atta, amaxi, izeba eta familia guziaren partetik. Muxuk.



IBAI GALLARDON ALTZUGARAI etxalartarrak 10 urte beteko ditu apirilaren 6an. Aunitz urtez familiaren partetik.



“Zure begiendako, jar zaitetz esku onetan”

KIRURGIA:

Miopia
Astigmatismo
Hipermetropia
Bista nekatua

Zuen poztasuna da gure garantiarik onena

Donibane Lohitzuneko Poliklinika:
0033 559 513 144



**San Juan de Luz
laser**

LEITZAKO AMAZABAL INSTITUTUA

**AURREMATRIKULA EPEA:
APIRILAK 28-MAIATZAK 9**

- DBH
- BATXILERGOAK:
- OSASUN ETA NATUR ZIENTZIAK
- GIZARTE ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Amazabal 1 Leitza 31880 TF: 948 510915 FAXA: 948 510916
WEB-ORRIA: www.pnte.cfnavarra.es/iesleitza



«Biblia osoa... gutxi gorabehera»

Apirilaren 5ean, 22:00etan Berako Kultur Etxean
Korrika Kulturalaren barrenean antolatutako ekitaldia
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea. Laguntzailea: Berako Udala.



Sarrera: 6 €



Itipi-txartela dutenen artean
4 sarrera zozketatuko ditugu
Deitu 948 63 11 88ra
apirilaren 4ko 13:00ak baino lehen.



MUEBLES A METS



LARUNBAT
ARRATSALDETAN
IREKIA

Sarrera
BERAtik da

Sastrin karrika,

3.2 - 3.4 Alkaiaga

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

BISITATU GURE

WEB ORRIA

www.mueblesamets.com

Sukaldeak

Egongelak

Logelak

Bainugelak

4000 m²

erakusketa

AUKERA HANDIAK

KOLTXOIAK

- MALGUKIA
- LATEX-a
- MISTOA

OINARRIAK

- SOMIERRAK
- ABATIBLEAK
- TAPIZATUAK

%50
deskontua



ME K

ERAKUSKETA
ALDAKETA

BEHERAPEN
HANDIAK

METS

OFERTAK

